



BARREN  
TOKIKOM

# Lehertu da jaia





MULTIÓPTICAS  
**Uzuri**

## ‘Ez ikustek objektuetatik isolatzen gaitu, ez entzuteak pertsonengandik’

(Hellen Keller)

183/12 R.PS

**E**ntzumena zentzumen oso garrantzitsua da, soinua jaso, prozesatu eta ulertzeko. Prozesu horretan belarriek eta burmuinak hartzen dute parte.

Entzumenaren garrantzia bizitzako alor guztietan nabari da:

- Lanean: bileretan parte hartzeko edo telefonoz hitz egiteko.
- Eskolan: kontzentrazioa ahalegin berezirik gabe mantendu eta informazioa barneratzeko.
- Bizitza sozialean: Elkarrizketetan parte hartu ahal izateko isolatuta sentitu gabe, edo senideekin telebista ikusi ahal izateko.
- Segurtasunean: Kanean trafikoaren soinua entzun eta arriskuetatik babesteko; auto batek ez harrapatzeko, alegia.

Hori guztiagatik, entzumena osasuntsu mantentzea oso garrantzitsua da, eta horretarako gomendagarria da hainbat aholku jarraitzea:


- Musika edo bestelako soinuen bolumena kontrolatu egin behar da, eta aurikularren erabileraren denbora neurrian egin behar da.
- Zaratatik babesteko tapoiak erabiltzea.
- Bainuaren ostean belarriak ondo lehortu behar dira, edo bainurako tapoiak ere erabili daitezke.
- Belarrian ez da inolako objekturik sartu behar.
- Tarteka espezialistarengana joatea komeni da, prebentzio azterketak egitera.

### Audifonoak hilabetez doan probatzeko aukera



Entzumen galera mota desberdinak daude, baina ohikoena **Presbiakusia** da. Adinaren eraginez, soinu agudoak entzuteko gaitasuna modu progresiboan galtzen da. Entzumena ez da egun batetik bestera golpera galtzen, eta jende askok gutxiago entzuten bizitzen ikasten du, entzumena galtzen ari dela konturatu gabe.

Oso ohikoa den beste gaitz bat akufenoen kontua da. Soinu fantasma bat da, belarrian edo burmuinean entzuten dena. Pitidoak,



motor hotsak edo itsasoko uraren soinuak entzuten dira normalean. Arazo hauek konponbide desberdinak dituzte, horien artean **Audifonoak erabiltzea**.

Audifono mota ezberdinak daude merkatuan, baina garrantzitsua da norberaren beharren eta entzumen galeraren arabera audifonoa aukeratzea. Teknologia izugarri aurreratu da azken urteetan, eta entzumen kalitate oso ona eskaintzen duten eta ia ikusi ere egiten ez diren audifonoak ditugu. Baina galdera da, audifono bakarra ala bi? Bi audifonok soinua modu estereoa entzutea ahalbidetzen dute. Aukera izanez gero (ez da beti egoten), bi audifono jartzea izaten da gomendagarriena, entzumen aberatsagoa eskaintzen dutelako. Hala ere, zenbait kasutan gomendagarriagoa izaten da audifono bakarra jartzea.

Audifonoen erabilerara egokitzeko prozesua modu progresiboan egin behar da. Gaur egun %90eko arrakasta daukagu horretan, audifonoa probatzen duenak erosi egiten baitu. **Uzurin** eskaintza berezia daukagu, eta **hilabetez audifonoak doan probatzeko aukera dago**.

Audifonoez gain, entzumen laguntzaileak ere badira: bibratu egiten duten erlojuak, iratzargailu edo telefono bereziak, eta baita ere telebista ikusteko aurikular bereziak. Honi esker bakoitzak bere beharren arabera entzun dezake telebistako soinua. Entzumen arazoei aurre egiteko garrantzitsua da entzumena guztiz galdu aurretik konponbidea bilatzea.

**AMAIA AMASORRAIN LARRAÑAGA**

MULTIÓPTICAS  
**Uzuri**

San Frantzisko, 21 Ostolaza 7  
EL GOIBAR DEBA  
Tel.: 943 740 359 Tel.: 943 192 192

### AUDIOLOGIA ZERBITZUAK

- Audifono digitalak
- Konponketa eta mantenua
- Entzumen laguntzak
- Akufenoen terapia
- Neurriera egindako Tapoiak
- Moldeak
- Pilak
- Estudio Audiologikoak



# Lanbroa

Pedro Muguruza, 5

Tel.: 943 743 811 / 943 740 806



Astelehenetik ostiralera irekita  
goizeko 6:00etatik aurrera.  
Larunbat eta jaiegunetan  
goizeko 7:00etatik aurrera.



- \* Menuak 10€tan
- \* Plater konbinatuak
- \* Bokatak eramateko
- \* Pintxoak



# USUA

 943 256 028  
kafetegia

## asador ibai-ondo

MENUEN KARTA

943 256 028

EGUNEKO  
MENUA

12€



MENU BEREZIAK  
ERE EGITEN DITUGU

30€  
(+ BEZ)

SANBARTOLOMEETAKO  
MENUA



# ONDO PASA JAIXETAN!!

# Jai zoriontsuak!





INMA MUGERTZA



*“Dirutza handia erabili izan da ibai-karramarroaren iraupena lor dadin, kanpotarra izanik”*

**K**aixo, Ander! Jakingo duzu akaso, baina orain arte hemen bertakoa zela uste genuen ibai-karramarroa, ez omen da bertokoa! Beste hitz batzuetan esanda, *Austrotropotamobius italicus* izena duen karramarroa ez da autoktonoa! Itxura denez, Felipe II. erregeak eskatuta XVI. mendean Italiatik ekarri zen lehen aldiz, Toscanatik hain zuzen ere.

Gai honek barrea eragin dit. Izan ere, biodibertsitatearen kontserbazioaren lehentasunetako bat karramarro hau da (kanpotik ekarria izan den espezie bat) eta dirutza handia erabili izan da bere iraupena lortu dadin, kanpotarra izanik.

Administrazioetik sekulako lanak egiten ari dira bertakoak ez diren espezieak deuseztatzeko (bisoi amerikarra, leprosa dortoka, koipua...) eta hemengoak diren baldintzak hobetzeko beraien

biziraupena errazteko asmoarekin. Nik, ordea, ez daukat argi jarduera hauek zerbaitetarako balio ote duten eta lotuta daramaten diru-gastuak merezi ote duen. Zer deritzozu, Ander? Litekeena da kasu zehatzen batetan beharrezkoa izatea (mejilloi zebrarekin agian) baina, oro har, oso kritikoa naiz jarduera hauekin, ez baitaukat argi zer den bertakoa eta zer den kanpokoa izatea. Nork neurtzen du hori? Zein garaitatik hasten dira kontatzen? Lurraren baldintzak ez dira estatikoak eta garai batean leku batean bizi izan diren abere eta landare batzuk, tokiko baldintzak aldatuta, lekuz aldatzen dira bizirik irauten jarraitzeko.

Baina jendea, etorkina naiz bertokoa, ez da biodibertsitatearen atal modura kontsideratzen, eta bai, karramarroa babestuta egongo da (kanpotarra izanda ere), baina Gerard Semushi afrikarra ez.



ANDER IZAGIRRE



*“Gure basoetan bizi den katajineta ere arabiarrek edo erromatarrek ekarri omen zuten”*

**K**aixo, Inma! Ezagutzen nuen “bertako” karramarroaren kontua, bai. Niretzat ere sorpresa handia izan zen. Eta karramarroarena ez da inondik inora kasu bakarra. Beste adibide bat aipatzearen, gure basoetan bizi den katajinetaarena aipatuko nizuke. Arabiarrek edo erromatarrek ekarri omen zuten gure katajineta.


Eta orduan, zergatik kontsideratzen dira bertakotzat? Eta beste batzuk, zergatik ez? Sartzapen garaia ote da baldintza? Hala bada, non dago muga? Izan ere, Neolitikokoan (k.a. 7000-4000 urte) gertatu ziren lehen flora eta fauna sartzapenak. Baina denborak baino, ez al du garrantzia gehiago bertako ekosisteman duen eraginak?

Bada, badira besterik gabe kanpotarrak diren espezieak, espezie exotiko deritzogunak, baina badira beste batzuk, kanpotarrak izan eta bertako dibertsitate biologikoan eraldaketak

sortu eta mehatxua izan daitezkeenak: espezie exotiko inbadi-tzaileak.

Azken talde honetan kokatzen diren espezieak kanporatzeko kanpainak zalantzan jartzen dituzu. Nik, ordea, orokorrean (salbuespenak badaude) egoki ikusten ditut kanpaina hauek, aurrez aipatutako arrazoi berberetatik. Espezie hauetako askok bertako espezieak desagerrarazteaz gain, ekosistemen funtzionamendua alda dezakete. Eta ingurumen arazoiez gain, osasun arazoiak eta arrazoi ekonomikoak ere badaude. Diru asko gastatzen da espezie hauek kanporatzen, bai, baina kontuan izan behar dugu beraien ere kalte ekonomiko handiak sor ditzaketela.

Eta gizakiarekin alderatzeko orduan, desberdintasuna nabaria da. Guk badaukagu, lurralde desberdinetakoak izanda ere, elkarrekin bizitzeko gaitasuna; animalia eta landare askok, ez ordea.



tzuli dira zezenketak Donostiako zezen-plazara, aurreko agintariak kendu eta bukatutzat eman arren. Iruñean, ordea, ez dituztela kenduko esan dute, oraingo agintariak Donostian zeudenen kolore berdinekoak izan arren. Tradizioaren izenean ezin omen dira gauzak ukitu. Sakratuak direla diote. Urteetan zehar errepikatzen diren ohiturak maite ditu jendeak, hartzten duten garrantzia Jainkoaren pare jarri arte.

Bada, hala ere, telebistan erretransmitzen ez den bestelako entzierro tradizional bat. Sortzaileei ez diete ongietorri eta

omenaldirik egin udal-etxean (ezta egingo ere, seguraski) eta ez diete aipamenik egiten egunkari eta irratietan.

Duela urte batzuk lurrazpitik irtendako gazte kuadrila bat, San Ferminak (ofizialak/eskuko programa-

*“Izango al dugu guk Villavesako sokamuturrik sanbartolomeetan? Mundiala litzateke”*

koak, noski) bukatutzat emanda zeudela, etxerako bidean Villavesaren autobus baten aurrean hasi ziren korrika, barre-argara artean, autobusa zezen handia biltz bezala. Etxera joateko umore onegiaz zeuden oraindik, dirudienez. Urteak pa-

## Indurain

sata, arriskutsuegia bilakatu zen nonbait praktika hau eta aurrekoari buelta bat eman nahi izan zioten. Entzierro ezaguna hasten den lekura joan eta eskuan egunkaria zutela San Fermin mozorrotutako gazte bati kantatu ostean, gaupasero guztiak Indurainen arropak jantzita (ezpata-bizikleta eta elastiko hori eta guzti) kale hasieratik zetorren txirrundulari baten aurrean hasi ziren lasterka. Kristal bakarreko plastikozko betaurrekoak jantzita eta kalimotxo katxia eskuan, Indurainen aurre eta albotan egiten zuten korrika, kasu gehienetan ulertezina eta justifikaezina den karga polizial batek enzierroa sakabantzuen arte.

Urtez urte errepikatzen den ohitura da Villavesako entzierroa, urtez urte zale gehiago biltzen dituen, zezenik, politikaririk, ezta ofizialtasunik ez duen jai giroko tradizio berezia. Izango al dugu guk Villavesako sokamuturrik sanbartolomeetan? Mundiala litzateke.



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA  
Euzko Legebiltzarreko Argitaletxea

Kalebarren plaza, 2 20870 ELGOIBAR - 943 744 112 - [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)  
[www.barren.eus](http://www.barren.eus)  
Publizitatea: 943 743 704 - [barren.publi@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren.publi@elgoibarkoizarra.eus)

BARREnek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarkiak lekuz aldatzeko eskubidea. BARREnek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozoak Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako enrantzukizunik.

KOORDINATZAILEA Ainhoa Andonegi KAZETARIAK Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia HIZKUNTZA ARDURADUNA Ainara Argoitia  
PUBLIZITATEA Leire Rubio, Leire Alberdi MAKETATZAILEA Zalao Arnaiz ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA Aitor Lauzurika  
ADMINISTRARIAK Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro KOLABORATZAILEAK Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Iureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julen Ansola, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. INPRIMATEGIA Gertu Koop.E. TIRADA 4.860 ale LEGE GORDAILUA SS-1.038/92 ISSN 1138-1855

LAGUNTZAILEAK:



elgoibar  
bizirik



BARREnek ez du nere gain hartzen IRITZIA eta ESKUTITZAK ataletan adierazitako en erantzunkizunik. Eskutitzak ondo identifikatuta egon behar dute. Ez ahaztu izen-abizenak, NAN eta telefonoa jartzea. Bidali helbide honetara: [barren@elgoibarkoizarra.eus](mailto:barren@elgoibarkoizarra.eus)

### ► ESKERRIK ASKO

Eskerrak Iturri, Jai-Alai, Arkupe eta Mahats tabernei, Astigarraga kirol dendari eta Xabi Art artisauari, garaikurrekin eman dako laguntzagatik. Baita ere Baltasar elkarteari, txapelak egiteagatik, Ibai-Ondo erretegiari, rifa irabazlearen afaria emateagatik, eta Alzola Basque Water enpresari, ura emateagatik. Eta, nola ez, Elgoibarko Berditasun Sailari, Kirol Patronatuari eta Lagunak Pelota Elkarteari.

Ibai-ondo erretegiak emango duen errifaren irabazlea Guillermo Melika izan da, 707 zenbakiarekin.

Era berean, gogorarazi nahi dugu iraitan pala mistoko txapelketa hasiko dela eta dagoeneko zabalik dagoela izena emateko epea. Interesatuak Iturri tabernan eman dezakete izena. Animatu!

### Nesken pala txapelketako antolakuntza taldekoak

### ► SEBAS ETXERA!

Aupa! Festa garaia da. Heldu dira sanbartolomeak eta Elgoibar jaietan murgilduko da. Kezkak alde batera laga, lagunekin giro onean gozatu... Baina egun hauetan ere, ez ditugu ahaztu nahi gure herrian ematen diren hainbat egoera. Lau urte luze joan dira ETak borroka armatua utzi zuenetik eta pentsa zitekeen denbora honetan pauso batzuk emango zirela demilitarizazioaren inguruan, biktimen inguruan, preso eta iheslarien egoeren inguruan... baina ez dugu horrelakorik

ikus. Gure herrian badugu froga bat: Sebas Etxaniz. Sebasek 72 urte beteko ditu. Iheslari moduan 12 urte egin eta gero, Nikaraguan atxilotu eta hiru urte egin zituen espetxean. Kanean zazpi urte egin ondoren, Venezuelan atxilotu eta hamahiru urte darama espetxean bigarren aldian. Ez da egoera horretan dagoen bakarra. Presoen sakabanaketak bere horretan jarraitzen du. Larri gaixo dauden presoak espetxean dituzte, hiltzorian ia. Presoei legez dagozkien eskubideak ukatzen zaizkie. Hau da estatu espainiarra eta frantziarra momentuz ematen ari diren erantzuna. Etsigarria izan arren, ezin gara geldu. Gure desadostasuna adierazi behar diegu euskal preso eta iheslari politikoei giza eskubideak ukatzen dizkieten horiei. Horregatik antolatu diren ekintzetan parte hartzera deitzen zaituztegu. Preso eta iheslari politikoei eskubideak aitortu! Sebas askatu! Ondo pasa jaietan!

### Elgoibarko Sare

### ► ELGOIBARKO IZARRAREN TXIKI EGUNEKO HERRI-BAZKARIA BERTAN BEHERA GERATU DA

Elgoibarko Izarrak bertan behera laga du Txiki eguneko aurtengo herri-bazkaria, behar beste jende animatu ez delako.

Elkarte euskaltzaleak penaz hartu du erabakia eta eskerrak eman nahi dizkie aurtengo bazkariako izena eman duten herritarrei zein bazkaria eman behar zuen

Sigma jaieteari. Elgoibarko Izarrak udazkenean erabakiko du aurrerantzean Txiki eguneko bazkariarekin zer egin.

### Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea

### ► ZAPIAK JAIETAN

San Bartolome jaietan ere erabakitzeko eskubidearen alde egingo dugu Gure Esku Dago taldekook. Era berean, erabakitzeko eskubidearen alde egiten duen elgoibartar ororen parte-hartzea eta presentzia beharrezkoak direlako, jai hauetan gure esku dagoen kamisetak eta zapiak janztera gonbidatzen zaituztegu. Herrian presentzia izatea izango da jaietako ekimena, jaietan ere gure esku dagoelako. Horixe da gonbidapena, kaleetan kolore laranja eta zapi gorriak ikustea. Bide batez, eskerrik asko ekimenetan parte hartzen ari zareten guztioi. Aurrerantzean ere elkar ikusiko dugulakoan gaude. Zapiak Elgoibarko tabernetan egongo dira eskuragarri 2 euroan. Ondo pasatu jaietan!

### Elgoibarko Gure Esku Dago taldea

#### OHARRA:

Abuztuaren 27an jasoko duzue hurrengo alea, jaietako berezia, eta irailaren 4an jasoko duzue ikasturte berriko lehenengoa. Ordura arte, ondo pasa jaietan!

**FONTANERÍA**  
**Ibámar**  
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheko B  
Floren Cid: 647 463 436  
E-posta: [ibamar@euskalnet.net](mailto:ibamar@euskalnet.net)

**Ondo pasa sanbartolomietan!**

- BEROGAILUA
- GASA
- GASOILA
- AIRE EGORTZEA
- ALTZARIAK
- MANPARAK
- OSAGAIAK
- GREMIOEN KORDINAZIOA
- ERREFORMAK

**JAI-ALAI** TABERNA

Kalegoen Plaza, 5 - 20870 Elgoibar  
Tel.: 943 740 021

**Ondo pasa jaietan!**

# Jaietako protagonista erraldoi eta buruhandienak

Elgoibarko jaietan ohiko bilakatu da erraldoi, buruhandi eta zezenzikleten kalejira, eta aurtten ere ez dute hutsik egingo. Egitarauan lekua lortu dute, eta dultzaineroen edo Mauxitxa txarangaren laguntzaz irteten dira kalera, batzuk umeak beldurtzera eta besteak dantzara. Trinitate jaietan buruhandi batekin izandako gertakariaren ostean, Haritz dantza taldeak kudeatzen duen Erraldoi, Buruhandi eta Zezenzikleten konpartsako kideek errespetua eskatu dute, eta hainbat aholku eman dituzte kalejiran arazorik ez sortzeko.

- AINHOA ANDONEGI -



Ez dituzte une gozoak bizi Haritz Dantzari Taldeak kudeatzen dituen Erraldoi, Buruhandi eta Zezenzikleten konpartsako kideek. Izan ere, sekula bizitzea tokatu ez zaiena bizi izan dute aurtengo Trinitate jaietan. Jokin Salegi eta Josu Espilla konpartsako kideek azaldu dute gertatutakoa: “Ez genuen gure begiz ikusi, baina esan digutenez, Mickey Mouse buruhandia ume batengana hurbildu zenean, umea beldurtu egin zen, eta haren aitak buruhandiari bultza egin zion, aurpegi hainbat zauri eraginez”. Gertakari “isolatu” bat izan zela diote, baina hainbat komunikabidek gaiari emandako tratamenduaren ondoren gertakari horrek hartu zuen dimentsioak harritu egin ditu: “Idatzizko prentaan irten ziren albiste batzuen eragi-

nez gertakaria asko zabaldu zen, eta telebista kateetatik sekulako lata eman ziguten. ETBkoak etorri ziren herritarrei galderak egitera, eta TVEtik ere deitu ziguten. Gehiegizkoa izan zen”.

Baina kapitulo hori itxi eta aurrera begira jarri nahi dute konpartsako kideek, eta kalejira arazorik gabe egiteko “errespetua” eskatu dute. Haritz Dantza Taldeko dantzariak izaten dira erraldoi eta buruhandien barruan joaten direnak, eta euren lana egitea nahi dute soilik. Gaztetxoek buruhandien barruan joaten dira, eta gorpuzkera sendoagoa dutenek eramaten dituzte erraldoiak gainean. Pisu handia dute, erraldioen estruktura metalikoa delako, eta kontu handiz ibili behar izaten dute. Kalejirak ordu eta erdi inguru irauten du, eta erraldoi bakoitza bi lagun ar-





tean eramaten dute. Zezenzikletak normalean lau neskak eramaten dituzte. Hortaz, 18-20 bat lagunek jarduten dute lanean erraldoi eta buruhandien kalejiran, dultzainero eta txarangako kideez aparte. Urteetan dihardute Haritz Dantzari Taldeko kideek zeregin hori betetzen, eta inork baino hobeto dakite zelan jokatu behar duten umeekin: "Beldurtzen diren umeengana poliki-poliki gerturatzen gara, baina apur bat xaxatzen gaituzten gaztetxoan atzetik gogoz egiten dugu korrika". Buruhandiek badakite ume edo gaztetxo bakoitzari zenbat indarrekin jo behar dioten: "Txikienak ukitu egiten ditugu justu-justu, eta gaztetxoagoei ematen diegu egur pixkat". Dena dela, puxikak ez duela minik egiten nabarmendu dute Jokinek eta Josuk: "Esponja bat da, baina puskatu egiten denez, isolatzeko zinta jartzen diogu gainetik, eta horrek zarata handia ateratzen du, baina minik ez". Gurasoei eskatu diete euren lana errazteko eta beldurtzen diren umeak kalejiratik aldentzeko. Argi utzi dute baita ere ez daukatela inori min emateko asmorik:

## BURUHANDI BERRIAK

25 urtez Elgoibarko kaleetan gora eta behera ibili ostean, Donald ahateak, ipotz zoriotsuak, Pinotxok eta Mickey Mouse saguak agur esango digute abuztuaren 23an. Atsedena hartzeko unea iritsi zaiela erabaki dute Erraldoi eta Buruhandien konpartsako kideek eta Kultura Sailak, baina ez dute behin betiko erretiroa hartuko, eta tarteka ikusiko ditugu oraindik ere, besteak beste, Elgoibarko auzoetako jaietan. Hauetako laguntzera buruhandi berriak iritsiko dira aurtengo jaietan: amama, aitita, sorgina eta pirata. Abuztuaren 24ko kalejiran aurkeztuko dituzte.

Erraldoi eta buruhandien konpartsako kideak pozik agertu dira buruhandi berrien aukeraketarekin, eta euren ustez, ondo beteko dute buruhandien funtzioa. Izan ere, buruhandien zere-

*"Txikienak ukitu*

*egiten ditugu*

*justu-justu, eta*

*gaztetxoagoei*

*ematen diegu egur*

*pixkat, baina ez*

*daukagu inori min*

*emateko asmorik"*

"Guk ez diegu esango gurasoei nola hezi behar dituzten euren seme-alabak, baina batzuk gehiegi babesten dituzte umeak eta gure lana oztopatzen dute. Argi utzi nahi dugu indarrak ondo neurtzen ditugula eta ez daukagula inori min egiteko asmorik".

Era berean, herritarrek kalejiran zehar izaten dituzten hainbat jarrera ere kritikatu dituzte: "Jendeak ez du arriskurik ikusten, eta kalean goazenean erraldoien artean sartzen dira". Distantzia gordetzeko eskatu dute, izan ere, erraldoiaren azpian doanak aurrean duena ikusten du soilik, eta hori ere nahiko justu, beraz, trabarik txikiena ere oso arriskutsua izan daiteke: "Erraldoi bat lurrera eroriko balitz jende asko hartuko luke azpian". Erraldoiak geldirik eta atsedenean daudenean herritarrek lasai gerturatu daitezke, eta euren gustura erakutsiko dizkiete umei erraldoiak barruko aldetik, baina kalejiran edo dantzan ari direnean, distantziak gordetzea ezinbestekotzat jo dute.

gina umeak beldurtzea da: Beti izan dute funtzio bera buruhandiek. Ume eta buruhandiaren arteko lehia moduko bat da. Umeak buruhandia xaxatzen du eta buruhandiak hura harra-patzea du helburu, puxikarekin astindu bat emateko. "Sokamuturraren antzekoa da", esan dute Jokinek eta Josuk. "Pike horretan umeak edo buruhandiak irabazi dezake, korrika egiteko gaitasun handiena duenak, alegia". Orain arteko buruhandiak umeentzako "lagunak" zirela aipatu dute. Disneyko figurak izatean umeak ez zirela beldurtzen uste dute, eta horrek kontraesana sortzen zuela ume askoren artean: "Ume askok ez zuten ulertzen telebistan lagun itxura ematen duen pertsonaia batek astindua ematea". Buruhandi berriak "beldurgarriagoak" dira, eta dena hobeto joango dela uste dute.





# Talde-lana, kontzientziazioa eta jaia

**Jaia bai, baina ardurak hartu eta kontzientzietan eragin ere bai. Elgoibarko gazte koadrilek badakite horren inguruan zerbait. Bosgarren urtez, Deba ibaia garbitzera irtengo dira, Gazteen Egunean antolatu asmo duten ginkanari begira, eta erreka garbitze hori egun osoko egitarauarekin jantziko dute. Bazkaria, kalejira musikatua, jolasak, pregoia eta kontzertuak izango dira abuztuaren 22ko osagai nagusiak. Gazte Asanbladak antolatu du eguna bera, Maalako jai batzordearen barruan. Batzorde horrek, baina, egitarau zabalagoa du, ondoko orrian ikus dezakezuen.**

- AINARA ARGOTIA -

**A**buztuaren 22rako ibaia garbitzera deitu dute gazteek. Ez da kontu berria. Behar batek eraman zituen orain bost urte estreinakoz Deba ibaia garbitzera: urte hartan berreskuratuko zuten erreka jaitsieran parte hartuko zutenen segurtasuna bermatu beharrak. Ekin zioten, eta gaur arte, urtez urte eutsi diote ibaia garbitzeko ohiturari, besteak beste, sinistuta daudelako jaietan ere egin behar dela ahalegina beste balore batzuk sustatzeko eta ahal den neurrian herritarren kontzientzietan eragiteko. "Besterik ez bada ere, herritarrek urtean bi aldiz ibaira begira jarri nahi ditugu, ikusteko zer gutxi zaintzen dugun", esan du horren harira Haritz Arrietak, erreka jaitsieraren antolatzaileetako batek. Erreka jaitsieraren ibilbidea bera garbitu ohi zuten gazteek, Giza Eskubideen parke paretik Herriko Antzoki atzera artekoa, eta urtetik urtera, gero eta gazte gehiago batu ohi zen deialdi horretara. Erreka jaitsiera bera, aldiz, indarra galtzen joan da azkeneko urteetan, eta ikusita iaz koadrilen parte-hartzea zenbat apaldu zen, aurten ez egitea erabaki dute. Horren orde, baina, ginkana antolatu dute hilaren 28rako, Gazteen Egunerako, eta proba horietako bat errekan jokatu beharko dute partehartzaileek.



Hain justu ere, ibai zati hori garbituko dute aurten. "Hori, eta orain arteko edizioetan garbitu ez dugun beste ibai zati bat. Usuanetik gora edo lehen Lanbroa zegoen lekutik beherako zati bat", zehaztu du Arrietak. Era berean, bost urteotan bildutako zakarrei egindako argazkiekin erakusketa ere jarriko dute aurten, Maalan.



## ATZERA BEGIRA

2010. urtera arte ere, Gazte Asanbladak antolatu ohi zuen Gazteen Eguna Elgoibarren, Maalako jai batzordearen barruan, eta egitarauan zertaz gozatua izaten bazen ere, gazteen parte-hartzea ez zen haiengandik espero zena. Halaxe, egun horri beste buelta bat ematea erabaki zuten gazteek eurek. 2010. urtea zen, eta jai berria zen Harro2, Elgoibarko gazte mugimendua bateratzeko taldea. Gazte ugari batu ziren mugimendu hartara, eta Harro2ren batzar haietako batean erabaki zuten aurrez zenbait lagunengandik ibili zen kontuari heltea: garai bateko erreka jaitsiera berreskuratzea. Ekintza ikusgarria izango zela jakin bazekiten eta jendea erakarriko zuen zalantzarik ere ez zuten, baina jaia biribila izango bazen, partehartzaileen segurtasuna bermatu beharra zegoen, ezer baino lehen. "Deba ibaiko uraren kalitateak kezkatzen



gintuen. Norbaitek ibaian tragoren bat edanez gero edo zauriren bat eginez gero, kalterik ez zuela izango ziurtatu behar genuen eta deitu genuen Gipuzkoako Urak-era”, gogoratu du Arrietak. Uxatu zizkieten zalantza horiek, baina topatu zituzten zailtasun gehiago ere. “Erreka ertzetik buelta bat eman genuen eta jabetu ginen zakar asko zegoela: burdinazko piezak, alanbre zatiak, txapa zatiak, eta tartean, punta zorrotzeko zakar asko ere bai. Beldurtu ere egin ginen. 350 bat lagun ginen parte hartu behar genuenak eta ezin genuen horrelako arriskurik hartu. Beraz, erreka garbitzea eta kabiak zeuden ingurua markatzeak eta haiek errespetatzeko deia egitea erabaki genuen”.

Ikusgarria izan zen bildu zuten zakar pila. Ez sinistekoa. Obretan erabili ohi dituzten porlan eta burni zatiak, bizarra kentzeko xaflak, pixoihalak, botilak, konpresak, hondakin ugari eta tartean 36ko gerrako obus bat ere bai. “Justo Arriolak ohartarazi zigun guk errekatik ateratako traste hura obus bat zela, guk jakin ere ez genekigulako. Udaltzaingora deitu genuen eta udaltzainek Ertzaintzako artezilariei. Lehertu gabe zegoen itxuraz barruko lehergaia, eta Mendaroko harrobira eraman zuten eta hantxe leherarazi [Abuztuaren 20 hartan beste obus bat ere topatu zuten ibaian gorago, Bergaran. Elgoibarkoa baino handiagoa zen, 50 kilokoa, eta Arantzazuko harrobian zartarazi zuten]. Lehenengo ibai garbiketa hartan batutako zakar guztiak denbora egin zuten Arrantzaleen pasealekuan. “Guk nahi izan genuen Udala inplikatu, baina egia esan ez gintuzten oso ondo hartu eta han laga genuen zakar guztia, jendeak ikusi zezan. Hantxe egon zen zakar hura guztia egunetan eta asteetan, eta azkenean, lotsagatik-edo, erretiratu zuten norbaitek. Gero, ikusi zutenean Gazteen Egun hark

izan zuten arrakasta, beste jarrera bat hartu zuten.”

Bi urtean errepikatu zuten modu hartara, eta hirugarren urtean beste bultzada bat eman zioten egunari berari. “Beste planteamendu batekin hasi ginen lanean”, esan du Arrietak. Ordura arte, Gazte Asanbladak antolatzen zuten eguna eta gazte asko parte hartzera mugatzen ziren. Urte horretan, baina, antolaketa lanetan parte hartzea jarri zuten Gazteen Eguneko ekintzetan parte hartzeko baldintzatzat. “Jai ereduia bera aldatu nahi izan genuen modu horretan”. Harrera ona izan zuten deialdiak. Koadrila asko batu ziren, norik bere ardurak hartu zituen, eta denen artean antolatatu zuten denentzako izango zen jai. Aurten ere, sistema hori bera erabili dute hilaren 22ko eguna eta Gazteen Eguna izango dena antolatzeko.

### GAZTEEN EGUNERAKO MOTOR-BEROTZEA

Hilaren 22an hasiko dira Gazteen Egunari usaina hartzen. Gosari batekin hasiko dute eguna, Maalan, eta ibaia garbituko dute gero denek elkarrekin. Deialdia irekia da, eta hala, ibaia garbitzen laguntzeko prest dauden guztiei dei egin diete 10:30erako Maalara agertzeko. Azken urteetan deialdi honek izan duen erantzunarekin gustura dira hasiera-hasieratik kontu honetan jardun direnak, tartean Arrieta bera. “Poza ematen du jendea mugitzen dela ikusteak, nahiz oraindik izpiritua inkonformista hori sustatzen jarraitzea komeni zaigun. Ekimen honek, bestetik, balio du herritarrok jabetzeko zein zikinak garen eta zein gutxi begiratzen diogun gure errekari, bizi-iturri den horri. Erreka garbitzen ibili garenetan jabetu gara Deba ibaia ari dela bere onera etortzen, ari dela leheneratzen. Politia izan da, adibidez, arrainak

eta ur-oiloen kabiak topatzea, eta bitxia eta aldi berean, tristeia ere izan da, ikustea geuk botatako plastiko zikin eta bestelako materialekin egiten dituztela kabiak ur-oiloek”.

Ibaia garbitu ostean elkarrekin bazkalduko dute Maalan, eta bazkalostean, jolasak eta pregoia izango dute. Aurten, iazko Gazteen Eguneko lehiaketa irabazi zuen gazte koadrilak irakurriko

du pregoia. Kalejira musikatuak jarraituko dio pregoiari, Maalan bertan hasita, eta 20:00etan, Gaztetxera gerturatuko dira, han egingo duten urteurren ekitaldira. Mokadutxo egin eta kontzertuetarako prestatuko dira ondoren. Skaleak taldearen eta lerro hauek idazteko unean lotu gabe zuten beste talde baten kontzertuak izango dituzte 23:00etatik aurrera.

## GUNE ASKEKO EGITARAU OSOA

### Abuztuak 22, zapatua

#### ERREKA EGUNA

9:30. Gosaria Maalan.

10:30. Ibaiaren garbiketa.

14:00. Bazkaria Maalan, eta bazkalostean pregoia eta jolasak.

18:00. Kalejira musikatu Maalatik hasita.

20:00. Gaztetxearen urteurren ekitaldia eta mokadutxo. Gaztetxean.

Jarraian bertsio iluntzea. Gaztetxean.

23:00. Kontzertuak Maalan. Skaleak + talde gonbidatua.

### Abuztuak 23, domeka

#### BEZPERA

15:00. preso eta iheslarien eskubideen aldeko bazkaria Maalan.

Ondoren, Iñaki Labakarekin kantaldia.

### Abuztuak 24, astelehena

19:00. Niala magoa Maalan.

### Abuztuak 25, asteartea

#### TXIKI EGUNA

19:00-21:00 eta 23:00-01:00 Triki Ta Ke, erromeria, Maalan.

### Abuztuak 28, barixakua

#### GAZIEN EGUNA

12:00. Pintxo lehiaketako prestaketaren hasiera. Plazan

14:00. Bazkaria Kalegoen plazan eta argazkia.

16:00. Bingoa

17:30. Ginkana

20:00. Jolas Kalejira, Usuatik hasita.

Kontzertuak. Bukatzean, lasterketa.

05:00. Argazkia+txokolatada Maalan.

### Abuztuak 29, zapatua

#### BASERRITAR EGUNA

19:00. elektrotzaranga.

23:00. Kontzertua: Itziarren Semeak eta Egurra ta Kitto.





Lurdes ileapaindegia  
 Pedro Migel Urruzuno kalea, 10  
 943 256 105

**Jai zoriontsuak herritar guztiei**



**DARIC** bus




ESSER N-N1 Industrialdea  
 20850 MENDARO (Gipuzkoa)  
 Pedro Muguruza Etorbidea, 8-6.  
 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
 Tel.: 943 741 677  
 943 203 442  
 607 410 410  
[www.dariobus.com](http://www.dariobus.com)  
[clientes@dariobus.com](mailto:clientes@dariobus.com)

**Jai zoriontsuak!**



## 1953

**A**ste honetako erretratu zaharra Gloria Canalesek ekarri du BARREnera. 1953ko San Bartolome jaietako argazkia da, San Bartolome Egunekoa, hain zuzen ere. Erretratua Kalegoen plazan aterata dago, gaur egun Jai Alai taberna dagoen inguru horretan, eta badirudi erretratuako protagonistak bermouta hartzen ari direla.

**Ezkerretik eskumara:** Miren Zubizarreta (†) Donostiatik etorri zen sanbartolomeetara, eta Julia Barrutia (†) aldiz, Vigotik. Rosa Ayesta, Felix Ayesta (†) eta Mari Garate Madrilatik etorri ziren jaiak pasatzera.



**P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar**  
 ☎ 943 743 140 - [rosapf@telefonica.net](mailto:rosapf@telefonica.net)

**NORFO SL**

**Gure ondoko etxaldean zaharberritze obrak egiten ari dira, eta horretarako aldamio bat jarri dute. Exijitu geniezaieke gauetan edota oporraldian zaintzarako sistemaren bat jartzea?**

Etxalde horren jabeari edota enpresa eraikitzaileari argi erakutsi beharko diozu zeintzuk arrisku ikusi dituzuen, obra horrek zuri edo zure etxaldekoiei kalterik eraginez gero, erantzule nagusiak haiek izango liratekelako. Hori saihesteko, obra egiten diharduen enpresak edo enpresa eraikitzaileak behar diren neurri guztiak hartu beharko dituzte. Hala ere, zuk arriskuen berri emanda ere eurek neurririk hartuko ez balute, epaitegira jotzeko aukera izango zenuke, baina argi izan behar duzu epaitegietakoak luze jotzen duela eta handik ez zaizula erabakirik iritsiko zuk behar duzun azkartasunarekin. Horregatik, zeuek hartu beharko dituzue arrisku handiena duten bizilagunak babesteko neurriak, segurtasun enpresaren bat kontratatuz edo.

**AHOLKUA: Epaitegira jotzen baduzue, garbi azaldu beharko duzue kargu hartuta ere enpresa eraikitzaileak ez duela segurtasuna bermatzeko neurririk hartu eta agiri bidez frogatu beharko duzue segurtasun enpresa horren zerbitzuengatik zenbat ordaindu behar izan duzuen. Hori bai, epaileak erabakiko du gero zerbitzu hori kontratatzeko beharra zenbaterainokoa izan den.**

**ROSA Mª PINTADO:** Etxaldean Administrazioarako-Gratu ikasketen arduraduna Alcalá de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749

**administradores**  
 Consejo Vasco de Colegios de Administradores de Empresas  
 Industria Plena Administradores  
 Lurralde Katalunak



# Gremioen GIDA



## Aroztegiak

### Asima

Mota guztietako arotz lanak  
Ermuaranbide, 18  
☎ 687 15 02 26  
☎ 650 02 66 31

### Biena

Neurrira egindako lana  
Ermuaranbide, 12-14- 16 behea  
☎/Faxa: 943 74 31 16  
[www.biena.eus](http://www.biena.eus)  
[info@biena.eus](mailto:info@biena.eus)

### Imar

Aroztegia  
Olaso 15,55 pabilioia - A1  
☎ 943 53 14 71  
☎ 609 05 49 78  
Era guztietako arotz-lanak

### Ullazia

Aroztegia eta enbalajeak  
Albixuri Industriegunea, 1-O /1-P  
☎ 943 740 547



## Igeltseritza

### E. Arandia

Urasandi, 22 behea  
☎ 605 70 52 04



## Iturgintza, berogailua, eguzki energia, gasa eta klimatizazioa

### Ibámar

San Roke 10-A behea B  
☎ 647 463 436

### Ongi

Pedro Muguruza etorbidea,  
11 behea  
☎ 943 254 522

### Pagoaga

Biltegia eta tailerra  
San Antolln, 13  
☎ 943 740 279  
Bulegoa eta erakusketa  
Pedro Migel Uruzuno, 8  
☎ 943 943 740 512  
[tienda@pagoagasa.com](mailto:tienda@pagoagasa.com)

### Pagoerota

Herriko Enparantza, 10 behea  
MENDARO  
☎ 943 756 044/659 334 323

### Tellabide

Azpilgoeta, 7 - Mendaro  
☎ 943 755 062/607 755 062

### Santana iturgintza eta instalazioak

Urasandi, 17  
☎ 943 740 530/605 714 905  
Faxa: 943 531 825



## Elektrizitatea

### Carranza

Lehen Aramar, orain Carranza  
Morkaiko, 1  
☎ 943 74 12 80

### Azpeleta

San Frantzisko, 51  
☎ 943 74 12 38

### Iparelek elektrizitatea

Killimon hiribidea, 1, 2. lokala  
Mendaro  
☎ 943 530 356/659 934 964  
[iparelek@gmail.com](mailto:iparelek@gmail.com)



## Pinturak

### Blok dekorazioa S.L.

Upalz zaharra, 14 behea  
☎ 943 74 15 52  
☎ 606 43 11 19-20



## Leihoak

### Lodoso Leihoak

Sigmako industrialdea  
Xixilion 2  
2. pabilioia - 3. zenb.  
☎ 943 743 490  
Faxa: 943 747 312  
[www.lodoso.es](http://www.lodoso.es)



# ▶ Kalamua guraso elkarteak botako du jaietako txupinazoa

**H**erri Eskolako Kalamua guraso elkarteak botako du aurten San Bartolome jaietako hasiera emango den txupinazoa. Itziar Aranbarri eta Edu Uranga guraso elkarteko kideak, eta Juanjo Bastarrika igoko dira abuztuaren 23ko eguerdian udaletxeko balkoira, eta elizako kanpaiak 13:00etako kanpai hotsak jotearekin batera piztuko dute txupina. Jaiak eztanda egingo du une horretan!

Euskal Eskola Publikoaren Jaia Elgoibarren ospatu dute aurten, eta urte osoan zehar egindako lanari amaiera emango dio guraso elkarteak ekitaldi honekin. Sorpresaz eta pozik hartu dute txupinazoa botatzeko gonbitea, eta Edu Uranga eta Itziar Aranbarriren iritziz, urte osoan egindako lanaren aitortza modukoa izan da Udalak egin dien gonbidapen hori. Jaietako txupinazoa botatzea ohore bat dela adierazi dute. Umeekin joan ohi dira jaien hasiera ekitaldira, eta aurten jaia hasiko dutenak beraiek izatea oso berezia izango dela azaldu dute. Juanjo Bastarrika ere txupinazo zalea da, eta 13:00etakoaz gain, 15:00etako txupinazo tradizionalera ere joaten da, garai batean sanbartolomeak 15:00etan hasten zirelako.

Juanjo Bastarrika ez da gaur egungo guraso elkarteko kidea, baina elkarteko kideek gonbidatuta igoko da udaletxeko balkoira San Bartolome bezpera egunean. Orain dela 22 bat urte guraso talde batek "lan handia" egin zuen Elgoibarren Eskola Publikoa euskalduntzearen alde, eta horietako bat izan zen Juanjo Bastarrika. Garai hartako kontestura eraman gaitu Juanjok: "Uste genuen eskola publikoaren euskalduntzea beheko maileratik emango zela Ikastolak izaera publikoa hartuko zuelakoan, eta gero, goi zikloak euskalduntzea faltako zela". Institua euskalduntzeko lanean Ikastolan zebiltzan hiru irakasle aipatu ditu: Andres Alderdi, Iñasio Garmendia eta Angel Ugarteburu. Azkenean, baina, Ikastolak pribatuaren aldeko apustua egin zuen, eta bokazio publikoa zuten hainbat gurasok eskola publikorako pausoa eman zuten. Juanjoren kasuan, alaba nagusia Ikastolan zebilen, baina bigarrena eskolatzea tokatu zitzaizenean Herri Eskolan matriculatu zuten. Baina garai hartan eskola publikoa "Erregimenaren" eskolatzat hartzen zen herrian, eta guraso horien nahia irudi hori aldatzea izan zen. Juanjok gogoratu du eskola publikoaren alde zeuden hainbat guraso eta irakasle garai hartan hartutako erabakiek euskal eskola publikoaren euskalduntzean lagundu zutela, baina gaineratu du euren aurretik ere beste batzuek emanda zituztela pausok bide horretan, eta horri esker D eredua martxan zegoela Herri Eskolan. Timoteo Ucin z-



*Juanjo Bastarrika, Itziar Aranbarri eta Edu Uranga.*

zendaria nabarmendu du Juanjok batetik, eta bestetik, guraso elkarteko lehendakari zen Juan Rodriguez. Talde horretan zeuden beste hainbat gurasoren izenak ere ekarri ditu gogora Juanjok: Jose Inazio Izagirre eta Izaskun, Josu Iturbe eta Amaia eta Iñaki Odriozola eta Rosadina.

Kalamua guraso elkarteko kideek garai hartan egindako lana eskertu nahi izan diete guztiei, eta talde haren ordezkari moduan igoko da Juanjo Bastarrika udaletxeko balkoira. "Pozik" hartu du gonbidapen hori Juanjok: "Norberarekin gogortzea gauza polita da", adierazi du hunkituta.

Kalamua guraso elkartekoak gustura geratu dira aurten egindako lanarekin eta Euskal Eskola Publikoaren jaiak izan zuten harrerarekin. Txupina botatzearekin etapa bat itxiko dute, baina aurrerantzean ere lanean jarraituko dute, Herri Eskola ezagutarazteko eta euren "altxorra" herritarrei zabaltzeko. Eskolako gurasoei deia egin diete elkartean parte hartzeko. Esan dute atea zabalik dutela edonorentzat eta denak ongi-etorriak izango direla.



# MILAR

**Ondo pasa jaietan!**

# BIRE



PRECISION  
SPINDLES

**JAI ZORIONTSUAK**

[www.myl.es](http://www.myl.es)

**Mendi-Bide  
Taberna**

**GOSARIAK, OGITARTEKOAK,  
PLATER KONBINATUAK...**

**BAZKARIAK ENKARGUZ.**

Santa klara, 14  
650 776 981

20870 - ELGOIBAR  
(Gipuzkoa)

## MERKANTZIA-GARRAIO ZERBITZUA

### OSORO



Igartualdea Industrigunea, 1  
20850 MENDARO

Tel.: 686 775 998

[osoro@transportesosoro.com](mailto:osoro@transportesosoro.com)  
[www.transportesosoro.com](http://www.transportesosoro.com)



25€

## Sanbartolomeetarako menu berezia!

Bazkariak eta afariak ematen ditugu.

Ordutegia: Asteleheneretik ostegunera: 07:00-21:30

Ostiraletan: 07:00-23:00

Larunbatetan: 10:00-23:00

Igandetan: 10:30 -18:30

**Erreserbak: 943 741 244 / 627 396 492**



**KARAKATE**  
jaketxea - restaurante  
ELGOIBAR

Pol. Oiaso, Oiasope 1  
[karakatejaketxea@hotmail.com](mailto:karakatejaketxea@hotmail.com)



***Ondo pasa sanbartolomeetan!***

**PSE-EE  
PSOE**



# jai alai



NEKAZARITZA TRADIZIONALA ETA BABESTUA

## ZELETA BARAZKIAK



*Ekoizpen prozesuan  
energia berriztagarriak  
erabiltzen ditugu*



- Landareen produkzioa
- Laborantza kontrola
- Eskuz eginiko aukeraketa
- Banaketa
- Bertako produktuetan erantzunik gertukoena

*Ortutik mahaira!  
Kalitatea bermatua!*

ZELETA BASERRIA • San Migel auzoa / ELGOIBAR • Tfnoa. 609 35 76 19 • [www.zeletabaserria.com](http://www.zeletabaserria.com)

Ekoizpenaren %100 hazte-zikloa zainduz eta tratamendu kimikoen erabilera sahiestuz lortzen dugu

# HIZKUNTZ SOLUZIOAK [www.ils.es](http://www.ils.es)

## IRAILETIK HASITA 2015-2016 KURTSOKO IKASTAROAK

- Meila guztiek.
- Titulu ofizialak.
- Esperientzia duten jatorrizko irakasleak.
- Talde murriztuak, enpresako klaseak.
- Ikastaroak atzerrian.
- Multimedia gela.
- Haurrak eta gazteak 4 urtetik aurrera.

[ils@ils.es](mailto:ils@ils.es)  
Azkue ouzoa (IMH)  
Tel.: 943 744 040  
Uparitzago, 12 behe  
20870 ELGOIBAR

## ENPRESA ITZULPEN ETA INTERPRETazio ZERBITZUAK

- Esperientzia zabala duen lan taldea:
  - Teknikoa (mahina-erreminta).
  - Honertziala.
  - Nazioarteko proiektuak.
- Goi-teknologiaren erabilera.
- Zerbitzu azkarra eta halitatezkoa.
- Prezio lehiakorrak.

## Ondo pasa jaietan!!

### Industry Language Services

inglés

francés

alemán

italiano

chino



INDUSTRY  
LANGUAGE  
SERVICES



# PRESO ETA IHESLARIEN ESKUBIDEEN ALDE! BAZKARIA

ABUZTUAK23



TXUPINAZOA ETA POTEAREN ONDOREN  
**ARRATSALDEKO 15:00ETAN GUNE ASKEAN**  
TIKETAK SALGAI JAI ALAI ETA ITURRIN **15€ETA 18€**

ONDOREN KANTALDIA  
**IÑAKI LABAKA**

PRESO ETA IHESLARIEN ESKUBIDEEN ALDEKO MUGIMENDUA





**EL GOI BAR  
SAN 2015  
BARTOLOME  
JAIAK**

Juan Diego Ingelmo valentziarraren *Splash* izeneko kartelak San Bartolome jaietako programaren azala aukeratzeko lehiaketa, eta 700 euro jaso ditu saritzat. Guztira 29 lagunek hartu dute parte. Umeen kartel lehiaketan, aldiz, 17 kartel aurkeztu dituzte lehiaketara, eta ondorengo hauek saritu dituzte: Alex Hernandez, Aritz Vallejo, Naroa Cerdeira, Nahia Baskaran, Nora Espilla eta Maule Bengoetxea.

**USATORRE**

Taberna

San Antolin, 6 Tel. 943 74 17 99

**ONDO  
PASA  
JAIETAN!**


**TELLABIDE**

ITURGINTZA

Berogailuak  
Gasa

Aire egokitua  
Erregai likidoak

Mendaren zain  
Elgoibarren  
ematen dugu  
zerbitzua



Ondo pasa jaietan!

Azpilgoeta 7 behea - Mendara  
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062  
iturgintzatellabide@hotmail.com



**Fotodepilazioa  
egiten dugu**

**ONDO PASA  
JAIETAN!**

Santa Ana, 18  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 741 864



electricidad  
**PEROSANZ**

[www.electricidadperosanz.com](http://www.electricidadperosanz.com)  
[perosanz@euskalnet.net](mailto:perosanz@euskalnet.net)

Ibargain 17, AC behea  
Tel.: 943 202 268  
Faxa: 943 206 045  
20600 EIBAR

Herriko Enparantza 5  
Tel.: 943 033 535  
Faxa: 943 031 718  
20850 MENDARO



**CORDON  
VILARCHAO**

**DEKORAZIOA**

Karpo eta barmeko estaldura  
Zolak ezartzea  
Lakadura: egur, aluminio, PVC.  
Pintura osokora

San Reke, 7 behea  
Pel. Olatu - Olatupe kalea, 18 - 25 eta 26 modulua  
Tel. 943 740 570



[www.branymec.com](http://www.branymec.com)

**BiM**

## ABUZTUAK 21, barixakua

### 18:00 ELGOIBARKO HIRIA FUTBOL TXAPELKETA

CD Elgoibar eta Lekeitioko taldeek jokatu dute. CD Elgoibarrek antolatuta, Mintxetan.

## ABUZTUAK 22, zapatua

### 19:15 ESKUBALOIA

Senior Nesken Ohorezko Mailako partida, Zarautz eta Zuazo taldeen artean. Sanlok antolatuta, Olaizaga kiroldegian.

### 19:30 ERAKUSKETA

Kirol argazkien lehiaketako lanen erakusketa jarriko dute ikusgai Kultur Etxean, hilaren 31 arte. (18:30-20:30).

### Jarraian, SARI BANAKETA

Jaietako kartel lehiaketako eta kirol argazkien lehiaketako sari banaketa. Kultur Etxeko erakusketa gelan.

## San Bartolome Bezpera

## ABUZTUAK 23, domeka

### 9:15 MEMORIAL ETXANIZ TXIRRINDULARI LASTERKETA

23 urtez azpiko afizionatu mailakoentzat. Gure Bide elkarteak antolatuta. Lehendakari Txapelketarako puntuagarria. Irteera: Kalegoen plazan. Helmuga: Pedro Migel Urruzuno kalean, 12:00etan. Jarraian, sari banaketa, Kalegoen plazan.





**13:00 TXUPINAZOA eta KANPAI JOTZEA**

Kalamua guraso elkarteko kideek botako dute txupinazoa.

**Ondoren, KALEJIRA**

Mauxitxa txarangarekin.

**16:00-19:30 KART-AK**

Kalegoen Plazan.

**16:00-20:30 HAURRENTZAKO PARKEA**

Aita Agirre plazan. Euria bada, Sigman.

**16:30 SORPRESA**

Zaharren biltokian.

**17:30-19:00 ERRALDOI ETA BURUHANDIAK, ZEZENIKLETEKIN**

Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

**19:00 KALEJIRA**

Mauxitxa txarangarekin.

**20:00 SALBEA**

Inazio Bereziartuaren salbea, parrokiari. Udaltzatza San Bartolome parrokiari joango da, "Alkate Soinua"-k lagunduta.

**22:30 KONTZERTUA**

Kalegoen plazan. Joseba B. Lenoir Gang eta Kalakan. Kalegoen plazan.



# TANTAKA

Aita agirre, 5  
Tel: 943 030 736

## TABERNA



🔹 **Pintxoak**

🔹 **Entsaladak**

🔹 **Ogitartekoak**

🔹 **Plater konbinatuak**

🔹 **Razioak**

**Gozatu  
jaixetan!**

**GRAN SIGLO** jatetxe txinatarra

Uparitzaga, 3 - Tel.: 943 031 185 - Elgoibar

**Menua 12€tan.**  
Edaria eta postrea barne.

**ASESORIA  
GOAR**

- Kontabilitatea
- Aholkularitza fiskala
- Asesoría laboral
- Abokatuak

San Bartolome, 2 behea  
Tel: 943 742 674 / 943 740 234  
Faxa: 943 742 129  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
asesoriagoar@outlook.com

**Txintxo  
INMOBILIARIA**

San Bartolome, 2 behea  
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)

Tel: 943 742 674



Tel.: 943 741 011

**LARRAÑAGA  
A U T O E S K O L A****Jai zoriontsuak!****IKASTARO TEORIKO INTENTSIBOAK  
EUSKARAZ ETA GAZTELANIAZ**

**Gaindi ezazu gida-baimena lortzeko  
azterketa teorikoa 17 urte egin aurretik**

**Zatoz informazio eske!****San Bartolome Eguna****ABUZTUAK 24, astelehena****9:00 DIANA**

Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin.

**9:45 UDAL TXISTULARI BANDAREN DIANA****10:00 UDAL MUSIKA BANDAREN KALEJIRA****10:45 ELGOIBARKO ZAINDARIAREN  
OMENEZKO PROZESIOA**

Udal Musika Bandak, txistulari taldeak eta Udalbatzak lagunduta. Denak batera, San Bartolome parrokiara joango dira, meza nagusira. Mezatan parrokiako abesbatzak eta Haritz dantzari taldekoek hartuko dute parte.

**11:00 MEZA NAGUSIA**

Udalbatzak bertan parte hartuko du. Mezatan, Parrokiako Abesbatzak Busca Sagastizabalen *Missa Brevis* abestuko du, eta Udalaren Txistulari Taldeak eta Haritz Dantzari Taldeak ezpata-dantza eskainiko dute.

**Jarraian, SOKADANTZA**

Kalegoen plazan.





## Ondoren, UDAL MUSIKA BANDAREN KONTZERTUA

- Kalegoen plazan, Txomin Mujikak zuzenduta.
- Icod (Lafuente)
  - Por las calles del viejo Madrid (Chueca-Bonete)
  - The lion king (Elton John)
  - Singing in the rain (Brouwn-Freed)
  - Jon Gorkal (Txomin Mujika)
  - Malagueña (Lekuona)

## 16:00-20:15 HAURRENTZAKO PARKEA

Kalegoen plazan (euria egiten badu Sigman).

## 16:00-20:30 QUAD-AK

Aita Agirre plazan.

## 17:30-19:00 ERRALDOIEN, BURUHANDIEN ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA

Elgoibarko, Iruñeko eta Guardiako dultzaineroekin batera.

## 18:00 PROFESIONALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK

Ikastolako frontoian.

## 18:30 KALEJIRA

Alma Tapatia Mariatxiekien.

## 19:30 ANTZERKIA

Txatarra ikuskizuna, Malascompañias taldearen eskutik. Kalebarren plazan.

## 23:00 MARIATXIAK

Alma Tapatia taldea, Kalegoen plazan.



# OSASUN GIDA



## FISIOTERAPIA

271\12

AINHOA FISIOTERAPIA ZENTRUA

- Fisioterapia eta osteopatia
- Eskuterapiak
- Drenatzaile linfatikoa (Vodder metodoa)
- Taping neuromuskularra

Jausoro plaza, 6 behea  
Elgoibar (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 531 953 - 669 565 745

177\12 fisio&más

### Fisioterapia aurreratua eta kirol berregokitzea

- Esku-terapia.
- E.P.I @ (Tendinitis tratamendua, zuntz-haustura)
- Esku Drainatze linfatikoa (DLM).
- Mesoterapia homeopatikoa:  
+ Traumatologia.  
+ Estetika (zelulitisa, estriak)

Osasunerako ariketa agindua (Diabetes, osteoporosis, hipertentsio arteriala)

### Entrenamendu gidatua

**Pilates makinak** (errehabilitazioa)  
3 pertsona gehien.

**Txirrindulariaren biomekanika** (kalak, ergonomia bizikletan eta lesioen prebentzioa)

Trenbide kalea 13, behea.  
Tel.: 943 740 191 - 667 953 628

## HORTZ KLINIKAK

171\12 LEKU EDER

- Diagnostiko digitala
- Estetika
- Kirurgia eta inplanteak
- Ortodontzia: haurrak eta helduak
- Protesiak: finkoak eta eraginak
- Odontologia orokorra
- Higienea eta prebentzioa
- Periodontzia (entzien tratamendua)
- Haurrentzako tratamenduak
- P.A.D.I.

Elena Herrero Lobo  
Aita Agirre enparantza,  
5 behea - Elgoibar  
Tel: 943 530 053

88\15 ELIZPE HORTZ KLINIKA

- Odontologia orokorra
- Ortodontzia
- Umeen tratamenduak
- P.A.D.I.
- Erreabilitazioak inplanteekin
- Erreabilitazioak zeramikekin

Elizburu, 3 behea - Soraluze  
Tel.: 943 752 567  
elizpe3@gmail.com

## OPTIKAK

65\07

IKUS OPTIKO-OPTOMETRISTA

Egunero:  
9:30-13:00  
16:30-20:00  
San Bartolome, 10  
Elgoibar  
Tel: 943 743 734

183\12

UZURI

- Optometria
- Kontaktologia
- Tonometria

Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21  
Elgoibar  
Tel: 943 740 359

## GINEKOLOGIA

82\15

M<sup>o</sup> JOSE RUIZ DE PORRES  
DOKTOREA

- Bularren azterketa
- Minbiziaren azterketa prebentiboa
- Zitologia
- Baginako eta sabelaldeko ekografia
- Mamografiak
- Bularretako ekografia
- Nerabeentzako arreta
- Menopausiadunentzako arreta
- Densitometriak
- Haurdunaldiaren kontrola
- Kontrapzepzio

Toribio Etxebarria, 4-1.ezk.  
Eibar  
Tel.: 943 202 857

## AUDIOLOGIA PROTESIKOA

183\12

UZURI

- Entzumen protesia
  - Tapoiak neurritara (uretarako tapoiak, zaraten kontrakoak...)
  - Audiometriak
  - Audifonoak
  - Akufenoen terapia
- Egunero:  
9:30-13:00 / 16:30-20:00  
San Frantzisko, 21  
Elgoibar - Tel: 943 740 359



Euskal preso  
eta iheslariak

# >etxera!

sortu

Mendi, Arnaldo, Sebas eta Josu

# Aterpe

Ondo  
pasa  
jaietan!

## TABERNA



Aterpe taberna - San Roke, 5 - Tel.: 943 742 595

# SAHATZU HARATEGIA

Santa Ana, 5  
T943 742 048

## JON ULAZIA "SAHATZU"



## Txiki Eguna

### ABUZTUAK 25, martitzena

#### 7:30 DIANA

Mauxitxa txarangarekin eta herriko dultzaineroekin.

#### Ondoren, SOKAMUTURRA, Arnoren zezenekin.

#### Jarraian, SALDA eta TXORIZO BANAKETA

Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Herri Gain eta Goiko Errota, Gure Bide elkarteek eta Batzokiak banatuta.

#### 12:00 HAURRENTZAKO ZESENTXO eta PONIAK

Aita Agirre plazan.

#### Ordu berean, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA



#### 18:00 PROFESIOALEN ESKU-PILOTA PARTIDAK

Ikastolako Frontoian.

#### 18:30 BETIZU SUHARREN ERAKUSTALDIA

Oztopo-jolasekin eta errekortadoreekin, Aita Agirre plazan.

#### 19:00 KALEJIRA

Brincadeira Evolution perkusio taldearekin.

#### 22:30 MUSIKA

Xaibor Dja, Kalegoen plazan.

## Gazteen Eguna

### ABUZTUAK 28, barixakua

#### 8:00 DIANA

Herriko dultzaineroekin.

#### Ondoren, SOKAMUTURRA

Arnoren zezenekin.

#### Jarraian, SALDA ETA TXORIZOA

Karakate, Ego-Toki, Zubi-Ondo, Herri Gain eta Goiko Errota, Gure Bide elkarteek eta Batzokiak banatuta.



#### 12:00 GOITIBEHERA JAITSIERA

Azkue-San Roken. Antolatzailea: Zuhaitz Aisialdi Taldea. Izenematea irteeran bertan. 14 urtetik 18ra artekoek gurasoen baimena aurkeztu beharko dute.

#### Ondoren, MAUXITXA TXARANGAREN KALEJIRA

#### 17:00-19:30 FUTBOL PARTIDAK ZEZEN BOLAZTATUEKIN

Aita Agirre plazan. Antolatzailea Zuhaitz Aisialdi Taldea.

#### 22:00 IDI-PROBAK

Kintopeko idi-probak, Sigmako probalekuan.

#### 23:00 KONTZERTUA

Jon Gurrutxaga & Banda eta Reincidentes taldeak, Maalako parkean.

#### 24:00-3:30 ALKOHOLAREN ERABILERA ARDURATSUA

Alkohol tasaren eta substantzien frogak egiteko karpa, Maalan

ONDO PASA  
JAIETAN...

[nava@euskalnet.net](mailto:nava@euskalnet.net)



**NAVA**



**INPRIMATEGIA**

BURGOA SOMOZA



Arraindegia

San Frantzisko, 2 - Tel: 943 748 130  
20870 Elgoibar



*1925etik arrain-saltzaileak.  
Bitarteko barik eta zuzen zuzenean itsasotik.*

**Imprenta Arrillaga**

Ondo pasa Jaiek!

Inprimaketa: Offset  
Digitalean

Ezkontze gorbidapenek  
Hileta origarriak  
Bilte txartelak  
Kartelak - etiketak  
e.a.

Fotokopiak

Kolonetan  
Txuri-betzean

Trenbide Kalea, 13 - behe (Frente parking Estacion Tren)  
Tel.: 943 74 01 87  
e-posta: arrillagasi@euskalnet.net

**autocares Revert**



**Kalitatea eta zerbitzu ona, eskura**  
Ard. P. Muguruza, 29 - 5º A - 20870 ELGOIBAR Gipuzkoa  
Tel.: 943 741 853 - Fax: 943 531 386  
autocaresrevert@gmail.com  
www.autocaresrevert.com

**karkizano**

Ondo pasa sanbartolomeetan!

San Frantzisko, 14  
Tel.: 943 740 549  
Elgoibar

**Maria Urizar**

**Ileapaindegia**

Errosario kalea, 9 - 1 ezk.  
Tel.: 943 744 489 - Elgoibar  
maria.urizar@hotmail.com



**IRIONDO KIROLAK**

Ondo pasa jaietan!

San Frantzisko, 37  
Tel.: 943 740 956  
ELGOIBAR

**DOÑA MERCEDES**

San Frantzisko, 21  
20870 Elgoibar  
Tel.: 943 742 652  
943 742 137

Ondo pasa jaietan!

## Baserritarren Eguna

### ABUZTUAK 29, zapatua

#### 9:30 GANADU LEHIAKETAKO PARTAIDEEI ONGI-ETORRIA

Haritz dantzari taldeak eta Udal Txistulari Bandak harrera egingo diete Kalebarren plazan.

#### Jarraian, BALTZOLA ANAIK TRIKITILARIEN KALEJIRA

#### 10:00 GIPUZKOAKO LIMOUSIN GANADUAREN TXAPELKETA

Aita Agirre plazan.



#### 11:00 SAGARDO LEHIAKETA ETA DASTATZEA

Kalegoen plazan, Sallobente elkarteak antolatuta.

#### 11:00 GAZTA LEHIAKETA ETA SALMENTA

Kalebarren plazan, Kalamua elkarteak antolatuta.

#### 12:00 KALEJIRA

Elgoibarko Kale kantariak giroa alaituko dute euskal abesti herrikoiekin.

#### 13:00 SAGARDO LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Kalegoen plazan.

#### 13:30 BERTSOLARIK

Kalebarren plazan.

**Ondoren, SARI BANAKETA**

Gazta lehiaketako sariak banatuko dituzte. Kalebarren Plazan.

**17:00 BALTZOLA ANAIK TRIKILARIEN KALEJIRA****18:00 MINTXETA MEMORIALA**

San Bartolome jaietako harri-jasotze txapelketa. Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Ikastolan). Antolatzailea: Kalamua elkarte.

**JARRAIAN, GANADU TXAPELKETAKO SARI BANAKETA**

Kalegoen plazan.

**19:30 KALEJIRA**

Elgoibarko kale kantariak alaituko dituzte kaleak, Euskal Herriko abesti herrikoiekin.

**19:30 DISKO FESTA**

Amaia Txinturreta Djarekin, Kalegoen plazan. Haurrentzako.

**22:00 IDI-PROBAK**

Kintopeko idi-probak, Sigmako probalekuan.

**23:00 DISKO FESTA**

Oihan Vega Djarekin, Kalegoen plazan.

**24:00-3:30 ALKOHOLAREN ERABILERA ARDURATSUA**

Alkohol tasaren eta substantzien frogak egiteko karpa, Maalan

# ARMUETA HARATEGIA ANGEL ARRIZABALAGA

San Bartolome, 16 - 20870 Elgoibar  
Tel.: 943 740 640 - 630 225 428

Jatekoa prestatzen dugu enkarguz,  
lagunarteko otorduetarako,  
zein etxerako. Piper beteak,  
albondigak, okela gisatua, etab...  
Etxean hazitako txahal-okela.



# Idama

Ileapaindegia • Estetika • Solarium-a

Estetika-medikuntza tratamenduak

Mikropigmentazioa

Antonio Arrilaga, 6-8 behe (sarrera Santa Ana kaletik) - Tel.: 943 744 026



- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA  
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA  
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

## MEKANOSA

Errosario, 27  
Tel.: 943 74 02 84 Elgoibar

Jon Aranoa  
Guillermo Torres



Elgoibar  
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Tel.: 943 740 704 - 639 067 337  
Astelehenaetik ostiralera: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30  
Larunbata: 11:00 - 13:00

Ileapaindegi zerbitzua dardagi.  
Datu ordua hartzeko.

ZURE ALDE



Jai zoriontsuak!

Komunitateen, ugazaben aholkularitza.  
Zuzenbide penala, zibila, laborala, familiarra.

Iñaki Gil Azpilicueta

Jausoro Plaza, 3 behea  
Tel.: 943 531 351

Ignacio Vazquez Gonzalez

e-mail: zurealde@telefonica.net  
20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)

ARAMBURU

BITXIDENDA

Ondo pasa jaietan!

San Frantzisko, 26 - Tel./faxa: 943 742 535 - Elgoibar



AZALEA Edergintza

M<sup>a</sup> Carmen Bereziartua

Trenbide Kalea, 3 zkia. behea - 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 740 310

**HIDRODEPURAZIOA**  
Organismoaren garbiketa naturala

GORPUTZ ETA AURPEGI ESTETIKA  
Depilazioa (laserra, elektrikoa eta argizarikoa) - Mikropigmentazioa

## Jubilatuen Eguna

### ABUZTUAK 30, domeka

#### 8:00 DIANA

Herriko dultzaineroekin.

#### SEGIDAN, SOKAMUTURRA

Amoren zezenekin, King-Kongetik.



#### 12:00 HEGALUZE PARRILLADA

Eusko Labeldun hegaluzea, parrillan. Kalebarren plazan. Antolatzailea: Elgoibarko Danborrada Atabal elkarte.



#### 12:30 JUBILATUEI ESKAINITAKO MEZA

San Bartolome parrokian.

#### 14:30 JUBILATUEN BAZKARIA

Olaizaga kirolegian, Eguren orkestrak girotuta.

#### 19:00 DANTZA SOLTEKO LEHIAKETA

Haritz dantza taldeak Udalaren Txistulari taldearen laguntzarekin antolatuta, 16 urtetik gorakoentzako. Kalegoen plazan.

## Umeen Eguna

### ABUZTUAK 30, domeka

#### 11:45 HAURENTZAKO ENTZIERROA

King-Kongetik Aita Agirre plazaraino.

#### Jarraian, ZESENTXOAK ETA PONIAK

Aita Agirre plazan.



#### 11:30-13:45

#### AIRE LIBREKO MARRAZKI LEHIAKETA

Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea.

#### 14:00 HAURENTZAKO HERRI BAZKARIA

Elizako arkupeetan. Antolatzailea: Zuhaitz aisialdi taldea. 7 urtetik 14ra artekoentzat. Bakoitzak bere ogitartekoa eraman beharko du, eta freskagarriak eta postrea banatuko dituzte.

#### 14:30 HAURENTZAKO PARKEA

Aita Agirre plazan eta Kalegoen plazan. (Euria egiten badu, Sigman).

#### 18:00 MARRAZKI LEHIAKETAKO SARI BANAKETA

Kalegoen plazan.

#### Jarraian, ERRALDOI, BURUHANDI ETA ZEZEN-ZIKLETEN KALEJIRA

Mauxitxa Txarangarekin batera. Haurrak mozorrotuta joateko eskatu dute.

#### 19:30 PAILAZOAK

Kiki, Koko eta Moko. Kalebarren plazan. Euria egiten badu, Maalako parkean.

### ABUZTUAK 31, astelehena

#### 22:00 IDI-PROBAK

Kintopeko idi-probei amaiera emango diete, Sigmako probalekuan.



e Igoibarren bizi  
e rosi  
herriak rabazi !!

- Alire Estetika ● Aranburu Bitxidenda
- Arauri Lumindegia ● Azkue Argazki Denda
- Biok Dekorazioa S.L. ● Burgoa Somoza Arraindegia
- Casa Astigarraga ● Lagunak koltxoidenda
- Doña Mercedes ● Eoanarro Merzeria
- Ene Bada ● Evoka Shoes ● Farma Apraiz
- Federopticos Ikus ● Ferpi Modak ● G & M Jantzidenda
- Garate Jantzidenda ● Garbiñe Estetika
- Golarra Drogeria ● Hazten
- Ipintza Margoak S.L. ● Iriondo Altzariak
- Iriondo Kirolak ● Kala Loradenda ● Karkizano
- Klitz ● Lanbroa ● Leigar Elektragailuak ● Lete
- Luvik Oinetakoak ● MG Burdindegia
- Moma Jantzidenda ● Muruamendiaraz ● Nu-van
- Ongi Iturgintza ● Ortopedia Itziar Sarasketa
- Patxi Harategia ● Pitxintxu ● Sara Jantzidenda
- Skandalo Kortse-Denda Lentzeria
- Uzuri Optika ● Zazpi Informatika ● Zeleta Barazkiak

Ondo pasa jaietan!



**BARREN  
AZOKA**

***Uste duzuna  
baino gehiago!***

**ARANTXA ETA MARIAN  
FRUTADENDA**

**TEL.: 943 744 440**

**Zure fruta eta barazkia  
dei batean etxean!**



**MARI  
HARATEGIA**

**TEL.: 943 743 681**



**AMAIA  
FRUTADENDA**

**TEL.: 635 704 712**

**Etxeko banaketa,  
fruta eta barazki  
freskoak zure etxean!**



**M. ANGELES  
FRUTADENDA**

**TEL.: 605 674 428**

**680 989 487**

**Zure etxera  
banatzen dugu!**

**TXILARRE barazkiak  
ELIKAGAI EKOLOGIKOAK**

**TEL.: 635 008 496**

**Salmenta zuzena!  
Baserritik etxera!**



**PEPI eta MILA  
FRUTADENDA**

**TEL.: 943 744 295**

**Etxeko salmenta zuzena!**

***Ondo pasa jaietan!***



# “Gazteen Egunean txosna gunean jotzeak plus bat dauka niretzat”

## ▶ JON GURRUTXAGA MUSIKARIA

Gazteen Egunean eskainiko du kontzertua Jon Gurrutxagak Maalako parkean, Reincidentes taldearen aurretik. *Hitz Lauz* bere bakarkako lehen lanarekin dihardu Gurrutxagak kontzertuak ematen, eta Euskal Herrian ez ezik, atzerrian ere eskaini ditu hainbat kontzertu. Uda honetan Galesen eman ditu hiru kontzertu, bi Cardiff-en eta Penarth-en bestea. Orain, herritarren aurrean aurkeztuko du bere azken lana.

- AINHOA ANDONEGI -

### ◆ Elgoibarkoa izanda, berezia al da sanbartolomeetan jotzea?

Azken urteetan argitaratu ditudan lan guztiekin izan dut sanbartolomeetan jotzeko aukera, eta alde horretatik oso pozik nago. Aurten ere nire azken lana jaietan aurkezteko aukera izango dut, eta gainera Maalako parkean. Azkenaldian ez dut aukerarik izan Maalan jotzeko, eta Gazteen Egunean txosna gunean jotzeak plus bat dauka niretzat.

### ◆ Taldearekin arituko zara, ezta?

Bai. Abenduko domeka baten aurkeztu nuen diskoa taldearekin Kultur Etxeko sotoan, eta domeka atsialdea izatean, jende asko seme-alabekin etorri zen kontzertura. Oso kontzertu polita izan zen, baina ez zen ohiko kontzertu bat izan. Nolabait esateko, kontzertu familiarra izan zen. Jaietan eskainiko duguna desberdina izango da. Beste ordutegi batean izango da, eta beste publiko batengana iristeko aukera izango dugu. Normalean Miguel Laguna mutrikuarrak jotzen du nirekin, baina abuztuan kanpoan dagoenez, Keu Agirretxea nire laguna egongo da gitarran abuztuko kontzertuetan. Orain arte grabaketetan hartu izan du parte, eta



zuzenekoren batean egin izan ditu kolaborazioak, baina nire proiektu batean sekula ez du jo kontzertu osoa, eta niretzat berezia izango da.

### ◆ Reincidentes taldearen aurretik joko duzu.

Ni ez naiz sekula izan Reincidentes taldearen zalea, baina Euskal Herrian asko entzun den taldea da. Gure musika estiloarekin ez dauka zerikusirik, baina jaietan denen gustuko musika eskaintza egon behar da, eta Reincidentes talde handia da. Jende asko erakartzen du, eta nik uste dut horietako askori gure musika ere gustatuko zaiela.

### ◆ Zer iruditzen zaizu sanbartolomeetan izaten den musika eskaintza?

Udalak azken urteetan Elgoibarko taldeei ematen die jaietan jotzeko aukera, eta hori oso ondo dago. Nik behintzat izan dut jaietan jotzeko aukera: UEKen azken lanarekin jo genuen, Sugramas taldearekin ere bai, eta orain ere joko dut, beraz, ni oso pozik nago. Norma-

lean jende asko erakartzen duen taldeen telonero izaten gara, eta hori interesgarria da. Udalak egiten du talde handiak ekartzeko aukera, eta aurten ere bi egunetan bi talde potente izango ditugu: Kalakan eta Reincidentes. Kalakan Iparraldeko taldeak eskaintza oso polita dauka, eta horren aurretik Joseba B. Le noir Gang taldeak joko du, une honetan Euskal Herrian dagoen rock talde garrantzitsuenetarikoa. Horrez gain, Maalako Jai Batzordeak ere emanaldi interesgarriak antolatzen ditu, bai herriko taldeekin eta baita kanpokoekin ere. Beraz, musika eskaintza zabala egoten da jaietan.

### ◆ Nola bizi dituzu jaiak?

Umeak ditugunok egunak aukeratu egin behar izaten ditugu, eta nik sanbartolomeetan bi zita izaten ditut: Bezpera gaua eta Txiki Eguna. Azkenaldian gero eta gutxiago elkartzen gara Txiki Egunean, baina egoten garenak gogoz ibiltzen gara.

# Kultur eskaintza oparoa



## JOSEBA B. LENOIR GANG. ABUZTUAK 23, San Bartolome Bezpera, Kalegoen plazan, 22:30ean.

Joseba Baleztena da talde honen arima. SixtySexers taldearen etenaldi batean, bakarkako bidea hasi zuen Josebak, One man band formatuan. Willis Drummond-eko Felix Buff bateria jolearekin elkartu zen ondoren, eta Gakobeltz bikoa osatu zuten. Udaberrian taldekide berriak batu zitzaizkien Joseba eta Felixi, eta martxoaz geroztik, bost lagunek osatzen dute talde hau. Taldean, elgoibartarrentzat aski ezagunak diren bi lagun: Napoka hiriko Ander

Mujika (gitarrak eta ahotsa) eta Miren Narbaiza (gitarrak eta ahotsa). Xan Bidegainek osatzen du laukote hori, baxuan eta perkusioan. Josebak bakarka sorturiko kantuak jotzen dituzte, baina taldearekin, beste jite bat hartu dute, beste nortasun bat.

## KALAKAN. ABUZTUAK 23, San Bartolome Bezpera, Kalegoen Plazan, 23:45ean.

Kalakan Ipar Euskal Herriko musika taldea da. Taldea Thierry Biscary, Xan Errotabehera eta Jamixel Bereauk osatzen dute gaur egun. Euskaraz abesten dute, eta kantu tradizionalen oinarritzen dira. Talde honen musikan perkusio tresnak (txalaparta, tobera, atabal, ttun-ttun, pandero, danborrak) eta ahotsak dira nagusi. Kantu herrikoien moldaketa minimalistak (ahots eta perkusio) egitea da euren berezitasun aipagarriena. Kantu herrikoiei gaurkotasuna ematen diote, besteak beste kantu zaharrei eritmoak emanez, edo pop eta rock'n'rollaren koplak erabiliz. Katia eta Marielle Labèque pianistekin Europan barrena kontzertuak eman ondoren, Madonna abeslariaren MDNA tour 2012 munduko birari esker hirukoteak ospe handia hartu du.



## UDAL MUSIKA BANDA. ABUZTUAK 24, San Bartolome Eguna, Kalegoen plazan, 13:00ak aldera.

San Bartolome Eguneako kontzertua eskainiko du Udal Musika Banda, sokadantzaren ostean. Txomin Mujikak zuzenduta, sei pieza eskainiko dituzte, Kalegoen plazan. *Icod* (Lafuente), *Por las calles del viejo Madrid* (Chueca-Bonete), *The lion king* (Elton John), *Singing in the rain* (Brown Freed), *Jon Gorkol* (Txomin Mujika) eta *Malagueña* (Lekuona).

## 'TXATARRA' IKUSKIZUNA. ABUZTUAK 24, San Bartolome Eguna. Kalebarren plazan, 19:30ean.

Malas Compañías zirko eta antzerki taldeak *Txatarra* ikuskizuna eskainiko du, umorea, antzerkia, objektuen manipulazioa eta akrobazia uztartzen dituen lan ikusgarria. Barrilez, taulez eta beste hainbat tramankuluz eraikitako unibertsoa ekarriko dute. Errutinaz, ahultasunez eta ametsez osatu dute unibertsoa, inora ere ez daraman konformismo eta onarpenetik harago.



## BRINCADEIRA PERKUSIO TALDEAREN KALEJIRA. Abuztuak 25, Txiki Eguna, 19:00etan.

Taldea Galiziatik dator. 2004an sortu zuten taldea, kaleko ikuskizunak eskaintzeko. Aurten Evolution ikuskizuna eskainiko dute Elgoibarko kaleetan. 2013an estreinatu zuten ikuskizuna, eta ordutik Alemania, Frantzia edota Italian zehar ibili dira lan hori erakusten. 10-11 laguneko taldea osatuta etorriko dira Elgoibarrera, eta Txiki Eguneako arratsaldea alaituko dute. Musikarien eta ikusleen arteko konexioa areagotu, eta koreografiak hartuko du garrantzia.

### **XAIBOR DJa. Abuztuak 25, Txiki Eguna, Kalegoen plazan, 22:30ean.**

2004tik dihardu Xaiborrek DJ lanetan. Musika jartzeaz gain, euskara sustatzea du helburu bere ikuskizunak, eta bi orduz jardungo du zeregin horretan. Ume zein gazteentzako ikuskizuna ekarriko du Elgoibarrera. Abesti gehienetan Xaiborrek berak jarriko du ahotsa, eta berarekin abestera animatuko ditu ikusleak. 11 urte hauetan merkatuko abesti ezagunekin osatu du bere errepertorioa, eta Elgoibarren ere, gaur egun punta-puntan entzuten diren abestiak entzuteko aukera izango dugu.



### **REINCIDENTES Abuztuak 28, Gazteen Eguna. Maalan, 23:00etan,**

Sevillako musika taldea da Reincidentes eta rock eta punk musika egiten du. Gai sozialak lantzen dituzte letratan: abortoa, indarkeria, antikapitalismoa... baina hainbat poetaren letrak ere musikatu izan dituzte (Miguel Hernandezenak, esaterako) eta Leon Gieco, Silvio Rodriguez edo Victor Jara kantautoreen kantuen bertsiok ere egin izan dituzte. Incidente Local talde sevillarrean du jatorria Reincidentesek. Ikasleen protestei oso lotutako taldea izan zen hori eta lehen kontzertua Sevillako unibertsitatean eman zuten, 1987an, ikasleek okupatu zutenean. Reincidentes izena hartu zuten gero, eta 1989an, maketa atera zuten urte berean, Sevillako diputazioak antolatu zuen rock lehiaketa irabazi zuen. Son handia eman zion hark, eta orduetik ehunka kontzertu eman dituzte han eta hemen. Bost lagunek osatzen dute taldea: Manuel J. Pizarro (bateria), Fernando Medina Pepper (baxua eta ahots nagusia), Juan M. Rodriguez Barea (gitarra eta ahotsa), Finito de Badajoz (gitarra eta ahotsa) eta Carlos Dominguez (soinu teknikaria), baina musikari ezagun askoren kolaborazioak izan dituzte.



### **JON GURRUTXAGA & BANDA. Abuztuak 28, Gazteen Eguna, Maalan, 23:00etan.**

Jon Gurrutxagak Arima Beltza blues&rock taldean hasi zuen bere musika ibilbidea bateria eta abeslari bezala. Talde gipuzkoarrarekin EP bat eta bi disko luze argitaratu ostean UEK hirukotean izan zen bateriari jole gisa. Ondoren, Jon & Sugramas proiektua sortu zuen, bere bakarkako ibilbidearen aurrekaria izango zen proiektua. Orain, 'Hitz lauz' diskoa aurkeztuko du herrian. Beasaingo Pottoko estudioan grabatu zuen diskoa 2014ko ekaina eta abuztua bitartean, lagunez inguratuta. Bakarkaka nahiz bandarekin hainbat kontzertu eskaini izan ditu, eta Elgoibarren bandarekin arituko da.



### **DISKO FESTA, AMAIA TXINTXURRETA ETA OIHAN VEGAREKIN. Abuztuak 29. Baserritarren Eguna. Kalegoen plazan, 19:30ean eta 23:00etan**

Debagoieneko Amaia Txintxurreta DJak haur eta gaztetxoentzako saioa eskainiko du 19:30ean, eta ondoren, leku berean, baina 23:00etan, Oihan Vega telebistako aurkezle eta irrati esatari ezaguna arituko da, azken urteotan Euskal Herriko DJ erreferente bilakatu dena Diskofesta ospetsuarekin. Euskal Telebistak eta Euskadi Gazteak sustatuta, Euskal Herriko disko festarik handienetan izan da, eta plazak goraino bete ditu. Elgoibarren aski ezaguna da Oihan Vega, sarri etorri izan delako aurrez.



### **KIKI, KOKO ETA MOKO pailazoak. Abuztuak 30, Umeen Eguna. Kalebarren plazan, 19:30ean.**

Kiki, Koko eta Moko pailazoak ezagunak dira Elgoibarren, aurrez ere izanak direlako hemen. Ikuskizun berri batekin datoz, baina, oraingoan: *Sustrai biziak*. Anbotoko dama kezkatuta agertuko da umeen aurrean naturan garai batean egon zen armonia galdu delako, eta aurkitzen laguntzeko eskatuko die. Sketxak bata bestearen atzetik etorriko dira, eta malabare-jokoak, zuzeneko musika, dantza eta jokoak uztartuko dituzte ikuskizunean.



# Kirol argazki onenak

Elgoibarko Udaleko Gazteria Sailak, Kirol Patronatuak eta Ongarri argazkilari taldeak hamargarren Kirol Argazki Lehiaketa antolatu dute aurten, eta bi orriotan jaso ditugu argazki irabazleak. Abuztuaren 22an banatuko dituzte sariak, eta erakusketa egingo dute gero lehiaketara aurkeztutako erretratuekin. Kultur Etxean egongo dira ikusgai abuztuaren 31 arte, eta egunero zabalduko dute aretoa 18:30etik 20:30era.

Miguel Carrero, "Cross 2"



Pedro Luis Ajuriaguerra "Saltando sobre Bilbao"

## SARIDUNAK:

### SARI OROKORRA:

1. saria: Pedro Luis Ajuriaguerra (Bilbo): "Saltando sobre Bilbao". (300 euro).
2. saria: Migel Carrero (Ordizia): "Cross2". (200 euro).

### GAZTEEN SARIA:

1. saria: Ander Izagirre, (Elgoibar): "Bloke eskalada itsasertzean". (300 euro).

Igor Froilan, "PZA 1"





Haizea Sanchez, "Color adolescente"



Haizea Sanchez, "Surf 2"



Ander Izagirre, "Bloke eskalada itsasertzean"



**HERRITARREN SARIA:**

Igor Froilan: "PZA1". (200 euro).

**NERABEENTZAKO SARIA:**

- 1. saria: Haizea Sanchez (Elgoibar): "Color". (150 euro).
- 2. saria: Haizea Sanchez (Elgoibar): "Surf2". (100 euro).



# atzak

taberna

San Roke 28, behea  
943 531 301 / 646 443 184

Bazkari eta afari bereziak  
ematen ditugu

# ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

# ARBELOA

INMOBILIARIA

[www.inmoarbeloa@euskalnet.net](mailto:www.inmoarbeloa@euskalnet.net)

Jai zoriontsuak!

San Frantzisko, 34

Tel.: 943 74 84 27

SUSTRAIETATIK SUSTATUZ  
Elgoibar martxan!

# bildu festara!

ehbildu



## ESARRI AUTOAK

MARKA GUZTIAK

Olaso, 17  
20870 ELGOIBAR

Tel.: 943 741 480

Fax: 943 031 576

Jon: 679 241 623

Anton: 680 356 573

e.mail: [esarriauto@gmail.com](mailto:esarriauto@gmail.com)

ZERBITZUA



# estetikaalire

- \* Aurpegi eta gorputz tratamenduak
- \* Ongizate tratamenduak
- \* Masajeak
- \* Fotodepilazioa
- \* Mikropigmentazioa
- \* Manikura
- \* Solariuma
- \* ...

Upatiz zaharra, 1 behea  
Tel.: 943 531 636  
Elgoiber



## SANTANA



Igor Santana

FRUINGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urasandi kalea 17, behea

943 740 530

605 714 905

[santanaiturgintza@gmail.com](mailto:santanaiturgintza@gmail.com)

- Amiantoa
- Fibrozementoa
- Gasa
- Berokuntza
- Klimatizazioa
- Elektrizitatea
- Energia berriztagarriak
- Eguzki energia

# Ondo pasa jaietan!



# “Gazteak animatu behar dira jaietako ekintzetan parte hartzera”

## ▶ ALBERTO ZELAIA

Alberto Zelaia, Sonia Hernandez eta Amaia Peñagarikanok goitibehera jaitsieran hartu zuten parte iaz, eta parte hartzeaz gain, originaltasunaren saria ere irabazi zuten. Goitibehera jaitsiera Zuhaitz Aisialdi Taldeak antolatzen du Gazteen Egunerako, eta urtetik urtera arrakasta handiagoa dauka. Erretxinditik Trenbide kalerainoko maldan behera ziztu bizian jaisten dira parte-hartzaileak, eta bide bazterretan herritar asko biltzen dira. Aurtengorako ere sorpresaren bat prestatzen ari direla aurreratu du Zelaiak.

- AINHOA ANDONEGI -

### ◆ Nola animatu zineten iazko goitibehera jaitsieran parte hartzera?

Orain dela hogeitun bat urte ere ibiltzen nintzen ni goitibehera jaitsieran koadrilakoekin, gaztea nintzenean, baina Sonia eta Amaia estreinakoz jaitsi ziren iaz. Afari bat egin genuen oportetan eta neskak hasi ziren esaten hartuko luketela parte goitibehera jaitsieran, eta behin hori esanda, ez zegoen atzera bueltarik.

### ◆ Zuek egin al zenuten goitibehera?

Ez, egina zegoen. Amaia senarrak Mekan lan egiten du eta esan zuen han bazeukatela goitibehera bat guri lagatzeko moduan. Goitibehera itinerantea da, Mekako ikasleek hainbat herritako jaietan erabilitakoa. Goitibehera edukita ez zegoen ez jaisteko aitzakiarik.

### ◆ Nolako esperientzia izan zen?

Oso ona. Poliki-poliki jaitsi ginen, eta abiadura horretan ez dago arriskurik. Ira-

bazteko baino gehiago ondo pasatzeko hartu genuen parte, eta egia esanda, oso ondo pasatu genuen.

### ◆ Eta ondo pasatzeaz gain, originaltasunaren saria irabazi zenuten.

Ba bai. Azken momentuan apaindu genuen goitibehera globo batzuekin, eta gu ere mozorroto ginen. Neskak Athletic zaleak direnez, bandera txuri-gorria eraman nahi zuten, eta nik Realekoa, beraz, biak eraman genituen.

### ◆ Aurten parte hartzeko asmorik?

Baietz uste dut, pentsatu dugu zerbait eta sorpresaren bat egongo da, baina gazteak animatu behar dira jaietako ekintzetan parte hartzera. Ekintzak antolatu arren, jendeak ez badu parte hartzen, alferrik da. Goitibehera bat egiteko ez da gauza askorik behar. Egur pusketa batzuk, errodamenduak eta ausardia. Horrekin nahikoa da. Egia da Zalla aldetik etortzen

direnek goitibehera oso profesionalak ekartzen dituztela, baina niretzako meritu handiagoa daukate lau egur zatirekin egindako goitibeheran jaisten diren gazteek.

### ◆ Zein izaten da jaitsierako punturik arriskutsuena?

Institutuko errebuelta. Koadrilakoekin jaitsi nintzen urte batean zuzen joan ginen eta ikusten ari ziren zazpi bat lagun hantaz gora bota genituen. Abiadura handia hartzen da, eta goitibehera geratzea ez da erraza izaten.

### ◆ Zer iruditzen zaizkizu Elgoibarko jaiak?

Egitarau ofiziala eta Maalako gunea batuta, jai konplotoak dira. Niretzako Txiki Eguna da onena, baina Gazteen Eguna ere ona izaten da, eta goitibehera jaitsieran, esaterako, jende pila bat batzen da.

# zubacor

*ONDO PASA SAN BARTOLOME JAIAK*

[www.zubacor.com](http://www.zubacor.com) - [zubacor@zubacor.com](mailto:zubacor@zubacor.com)

Tel.: 943 740 844 - Faxe: 943 742 666

Ondo pasau  
jaixetan!

Elgoibarko Haurreskola  
943 742 141

  
Haurreskolak  
www.haurreskola.com



 EEA

*Ondo pasa sanbartolomeetan!*





# ETXEBERRIA tanatorioa

Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

**KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.**  
**NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.**  
**ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK**

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR  
Telefonoak:  
943 741 327 (24 orduz)  
Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203  
[www.funerariaetxeberria.com](http://www.funerariaetxeberria.com)



San Bartolome 30,  
Tel.: 680 724 060  
Plaza txikitik ere badu sarrera!  
[ibarrenea@hotmail.es](mailto:ibarrenea@hotmail.es)

ARTISAU-OGIA  
EGUR-LABEAN  
EGINDAKOA

KONTSERBAK  
ETA ARDOA

ONDO PASA JAJETAN!



# PNEUMAX, S. A.

URISO KALEA, EDIF. 10, PAB. 02-03-04  
20870 Elgoibar (GIPUZKOA)  
Teléfono: 943 74 41 44 - 943 74 41 74  
Fax: 943 74 40 76  
E.mail: [pneumax@pneumax.es](mailto:pneumax@pneumax.es)  
Web: [www.pneumax.es](http://www.pneumax.es)



**AUTOMATIZAZIO**  
**NEUMATIKAKO OSAGIAK**





Arg.: Soarte

# Sallobentearrak, sagardoaren zerbitzura

**Abuztuaren 28an ospatuko da Baserritarren Eguna Elgoibarren, eta ohi legez, sagardo lehiaketa izango da egun horretan egitarauko ekintza nagusia. Sallobente auzoko boluntarioek hartu izan dute azkeneko urte luzeetan horren ardura eta haietako bat ekarri dugu hona: Jabier Zubizarreta 'Armaixxa'. Baserritarren Egunari berari buruz eta sagardo lehiaketaz hitz egin du.**

- AINARA ARGOITIA -

Sallobente elkarteko lagunek izango dute aurten ere Baserritarren Eguneko sagardo lehiaketa antolatzeko ardura. Badaute eskarmentua. Izan ere, 30 urtetik gora daramatzate zeregin horretan, eta denbora luzez jarraitzeko ilusioz eta indarrez daude gainera, Jabier Zubizarreta *Armaixaren hitzetan* [Sallobentekoen aurretik, Urazandiko Mutxikin elkartekoek egiten zuten]. Elkarteko bazkide da Jabier bera ere, eta hogeit bat urte daramatza egun horretan plazan lanean. Lanerako eguna izan arren, "egun ederra" izaten dela esan du, eta aitortu du topatzen dutela jairako tarterik ere. "Lanak bukatutakoan Sallobenteko elkartera joaten gara denok, eta elkarrekin bazkaltzen dugu han. Gelditu izan naiz urteren batzutan koadrilakoekin kalean bazkaltzen ere, baina gainerako urteetan beti igo naiz gora. Sekulako giroa sortzen da

han. Beti dago soinua jotzen dakien norbait, 200 bat txiste kontatzeko gai dena, eta gutxi-asko bertsotan egiteko gai den beste norbait, eta luzatzen da bazkalostea. Zortzi epaimahaikideak eta sagardoegile batzuk ere etortzen dira gurekin. Garai batean, sagardoegile guztiak etortzen ziren, baina orain batzuek kobratu egiten dute sagardoa ekartzeagatik eta ez dira denak etortzen".

40 bat lagun elkartzen dira lanerako egun horretan, gehienak Sallobente elkarteko bazkideak. Banatuta dituzte lanak, eta "fin" agertzen da jendea hitzordura, Armaixaren esanetan. "Deitu beharrik ez da egoten. Badakigu egun hori lanerakoa dela". Pare bat hilabete aurretik hasten ei dira sagardoegileekin lehen harremanetan elkarteko zuzendaritzakideak, baina ohi legez, azken unera arte ez dute jakiten zenbat ezta zeintzuk etorriko diren ere.



Arazorik ez da izaten normalean, baina. "Hogei bat etortzen dira urtero". Egunean bertan, sagardoak freskatzeko jartzeko izotza ekartzea izaten da aurreneko lana. Lekeitiotik edo Getariatik ekartzen dute normalean. Kamioia iritsi bitartean, mahaiak jarri, suak gertatu eta ingurua bera atontzen dute plazan bildutako boluntarioek. "Sagardoe-etxe bakoitzari zenbaki bat ematen zaio gero, epaileen ezkutuan, eta nire lana izaten da hori", dio.

### OHOLTZA GAINETIK

Azkeneko 15-16 urtean, oholtzan bertan izaten du lekua Jabierrek, epaimahaikideen ondoan, eta haiek emandako botoak zenbatzea izaten da bere ardura nagusia. "Zeruan nago ni orain. Hanka sartzerik ez egitea da garrantzitsua. Horixe dudan ardura nagusia", aitortu du. Benetako lana behekoek egiten dutela esan du: "Bazkide gehienak sagardo botilak zabaltzen jarduten dira. Hori bai dela lana! Sagardo egile bakoitzak lau-bost kaxa ekartzen ditu, eta botila horiek guztiak zabaldu egin behar dira! Eta jakina, sagardo botilak zabalzea ez da garagardo botilatxoak zabalzea! Kortxoak kentzekoak minduta uzten du batzuetan eskua, eta blai eginda amaitzen dute denek". Probatutakoa da bera ere lan hori. Epaimahaikideak zaintzen ibili aurretik horretxetan jardun zelako bera ere: sagardo botilak zabaltzen.

Horren harira, aipatu du bazter gutxi izango direla Elgoibarren moduan botilak boluntarioek zabaltzen dituztenak. "Epaimahaikide batek esan zidan aspaldi beste herri guztietan sagardoegeleek eurek edo eurek kontratatutakoek jarduten dutela lan horretan gurea moduko lehiaketetan".

Ikuspegi polita du orain oholtza gainetik, ikusmirarako astirik hartu ez arren. "Fijatzeraz joan ezkerrean han goitik ikusi daitezke bai ederrak, baina eguerdirako batzen den jendetzan galtzen zait niri begia", esan du. Beste pribilegiarik ere badu han goian egoteak: Epaimahaikideak probatzen ari diren sagardoa zein etxetako den jakitzea, esaterako. "Geuk ere edaten dugu han goian sagardoa, baina beti onetik. Jakitzen dugu zein den, eta 40tik 60ko puntuaziora artekoak baldin badaude, ezingo dugu ba 42koa edan!. Guk beti onenetik!". Epaimahaikideen kapazitatea nabarmendu du jarraian. Horrenbeste sagardoren artean onena aukeratzea ezin dela erraza izan dio. "30 txikito inguru edan egin behar dira gero! Izango direlako 30 txikitotik gora edaten dituztenak. Ahoa zabalteko txikitoa, sagardo etxe guztietakoetatik txikito bana gero lehenengo fasean, erdiak gero bigarren fasean, eta beste bakarren bat kortxo gustua duten edo ez egiaztatzeko... Horrek denak edan eta hanken gainean jaisten dira gainera, eta bazkaldu ere sagardoarekin bazkaltzen dute gero Sallobenten".

*30 urtetik gora*

*daramatzate*

*Sallobente*

*elkarteko*

*bazkideek*

*Baserritarren*

*Eguneko sagardo*

*lehiaketa*

*antolatzen*

# ESTUDIOS ARRILLAGA

Errosario, 15  
ELGOIBAR  
943 744 055

Arragueta, 12  
EIBAR  
943 200 698

- ETXEBIZITZETARAKO ETA LOKAL KOMERTZIALETARAKO PROIEKTUAK ETA BERRIKUNTZA-LANAK
- GREMIOEN KOORDINAZIOA
- JARDUERA BAIMENA LORTZEKO TRAMITEAK
- EUSKO JAURLARITZAREN DIRU-LAGUNTZAK ESKURATZEKO TRAMITEAK



## Unceta Taldeak jai zorientsuak opa dizkizue

 **UNCETA**  
Herramientas de calidad



 **SARIKI**  
METROLOGIA



 **LABMETRO**  
Laboratorio de Metrología



 **Muruamendiaraz**  
GOZODENDA



[www.muruamendiaraz.com](http://www.muruamendiaraz.com)


San Bartolome, 29 - 20870 Elgoibar - 943 740 345

*Ondo pasa sanbartolomeetan!*



## Makina Bereziak

Albitxuri, 1 · 3. Pabilioia, K-L  
Tel.: 943 744 466 · Faxe: 943 53 14 74  
ihardun@ihardun.net · www.ihardun.net



# LEIGAR

ELEKTRAGAILUAK  
MANU LEIZABE LOYOLA

TB · BIDEOA · HI-FI · DVD  
*Salmenta eta zerbitzu teknikoa*  
Errosario, 8 · Tel. 943 74 00 54

elgoibar ikastola

jai zoriontsuak!

www.elgoibarikastola.eus

# “Ahal izanda jubilatuen bazkarira ez datorrenak ez daki ondo zer galtzen duen”

## ▶ LIDIA IRIARTE VILLANUEVA JUBILATUA (TOLOSA, GIPUZKOA, 1937)



Tolosan jaio zen Lidia Iriarte eta 3 urterekin etorri zen Elgoibarrera bizitzera. Emakume alai delako dio, “izpiritu gaztekoa eta dantza zale amorratua”. Ilusioz dago sanbartolomeetarako, bereziki jubilatuen eguneko bazkarirako. Egun berezia izaten dela aitortu du eta parte hartzerantz animatu ditu bere adin bueltako guztiak. “Itzela izaten da”, dio.

- AINARA ARGOITIA -

### ◆ Prest sanbartolomeetako zuen egun handirako?

Prest? jakina ba! Desiatzen nago. Oso egun berezia da. 14:00ak alderako igozten gara kiroldegira eta han zain izaten duguna mundiala izaten da. Jubilatu asko elkartzeko gara, hemengoak eta kanpoak, eta izugarri ondo pasatzen dugu. Zazpi eurogatik sekulako bazkaria egiten dugu, xanpain eta guztikoa, eta dantzaldia izaten dugu gero. Zer gehiago eska genezake! Egun zoragarria izaten da. Eibarko lau lagun eta Ermuko beste lau eramaten ditut eta haiek ere esaten didate hemen daukaguna izugarria dela; ikustekoa dela zein ondo zaintzen gaituzten eta zein merke eta ondo jaten dugun. Iganderako eta astelehenerako Ermuko jaietara joateko gonbidatu naute hango lagunek, eta han ere badakit izugarri ondo pasatuko dugula, baina hemen bezain ondo inon ez. Lagunei ere esaten diet: ez haserretzeko, baina sanbartolomeetako gure eguna bezalakorik ez dagoela. Ni neuz oso eskertuta nago Udalari.

### ◆ Zer da zuretzat egun horretako bereziena?

Dena. Elgoibarren dena da ederra. Maiteminduta nauka herri honek. Entzuten dudanean jendea gaizki esaka Elgoibarri

## “Zoritxar guztiak ahazteko eguna da niretzat; indartuta itzultzen naiz etxera”

buruz, sutan jartzen naiz. Bizitzan asko pasatzea tokatu zait, eta ia begirik gabe ere gelditu naiz horrenbeste negar egiteagatik, baina jubilatuen egun horretan dena ahazten dut. Zoritxar guztiak ahazteko eguna da, bai niretzat eta baita beste askorentzat ere. Jende asko bizi da gaur bakarrik. Zu gaztea zara, eta ezingo duzu imajinatu, baina bakardadea berez gogorra bada, zahartzaroan askoz da gogorragoa. Ni neu indartuta bueltatzen naiz etxera bazkaritik, beteta.

### ◆ **Bistan da adina ez dela jaietan ondo pasatzeko traba?**

Ez, horixe. Nola ba? Adina baino traba handiagoak badadue: inbidia-eta.

### ◆ **Egurenak berak aitortu zigun elkarriketa batean bikote asko sortu direla bazkari horretan.**

Bai, bai. Alargun asko elkartu dira eta ederra da hori, jendea zoriontsu ikustea. Nik neuk ez dut beste gizonik nahi inguruan. Bat eduki nuen eta nahikoa min egin zidan berak!. Nahikoa negar eginarazi zidan, eta esperientzia hori izanda, beldurra diot orain beste harreman bat has-teari, baina oso ondo iruditzen zait nahi duenak laguna bilatzea. Akabo ba! Ezagutzen ditut nik ere gizon jatorrak eta jaso ditut proposamenak ere, baina esaten dizut: beldur handiegia diot nik horri. Baina jende asko elkartzen da, elkarrekin egon eta bidaiatzeko, eta hori polita da. Hori bai, gizonak, aguretzen direnean, asko gazte baino txarragoak izaten dira. Lapa bihurtzen dira asko eta asko, eta arnasarik hartzen ere ez dute lagatzen dantzaz. Gazteengatik jarduten dugu gero, baina ai! Dantza egitea izugarri gustatzen zait niri, eta etxean, irratia jarri eta zartagiarekin ere egin izan dut, baina horiekin ez. Eta ez ezazu pentsa! Askok ez dute gogo onez hartzen ezetza, baina ze arraiio! Pana bera baino zaharragoak dira eta haiekin derrigorrean dantza egin? Ez nik behintzat.

### ◆ **Sanbartolomeetaz zer gehiago gustatzen zaizu?**

Ez didazu sinistuko, baina niri dena gustatzen zait. Gauza politikak eta berriak ikustea baino gauza ederragorik ba al

dago ba! Jendea disfrutatzen ikustea bera da handiena. Elgoibarren denetarik daukagu eta kontrakoa dioenak gezurra dio. Sanbartolomeak jairik onenak dira. Udal musika bandaren kontzertua, dantza saioak, sokamuturra, haurrentzat dagoen aukera hori guztia... Orain ere, jaiak izan gabe, hor zeuden plazan ume pila bat dantzan eta kantuan [Atxuxiamaikako umez ari da]. Ni hunkitu ere egiten naiz horrenbeste ume gozatzen ikustean. Inork ez du baloratzen herrian dugun hori guztia.

Sokamuturra ikaragarri gustatzen zait. Sekulako beldurra ematen dit zezanak, baina gustatzen zait hantxe, lehenengo ilaran, egotea. Era berean, pena izugarria ere ematen dit halako animalia dotore bat hil egingo dutela jakiteak. Ez esan, badakit: sukarra baino bereziagoa naiz!

### ◆ **Zer diozu jubilatuek konformatzeko zailak direla dioen uesteaz?**

Hotelik onenean ere ez gaituzte zaintzen kiroldegian egun horretan bezala. Zerbitzen aritzen direnak ere zoragarriak dira. Beti jatekoa eskaintzen ibiltzen dira, eta hala ere, zahar batzuk beti marmarka. Nik ez dakit zer jaten duten etxean horiek! Beti izaten dute pegaren bat eta gero han ikusten dituzu ogia poltsan sartzen edo jan ez dutena gordetzeko eskatzen. Mania zatarrak dira horiek. Zaharrok ere baditugulako geure gauzak. Beti gazteetaz jarduten dugu, baina zaharrok handiustekoagoak gara, harroagoak. Askotan inbidiaz jarduten dute modu horretan gazteetaz, baina nik beti esaten diet: “Eta zuk zer egiten zenuen gaztetan? Ahaztu al duzu?”

### ◆ **‘Paquito chocolatero’ kantua mitikoa da bazkari horretan. Zein estimatua duzuen kantu hori!**

Eta nik jakin ez hori dantzatzen! Bai,

bai, izugarriko arrakasta dauka kantu horiek eta neuri ere gustatzen zait, baina nik ezin. Balsa, pasodoblea, tangoa... horiek gehiago gustatzen zaizkit, eta gehienegehien aureskua, baina edozein kantuk jartzen naute dantzaz. Oso alaia naiz ni; bestela hilda nengoke honezkerok! Negar errazekoa ere banaiz, baina igartzen dudanean banatorrela behera, jaiki, eta aire kalera! Bizitza bizi egin behar da.

### ◆ **Besteek esango duten horrek ez al die askori lar pisatzen oraindik?**

Ikaragarri. Besteek zer esango diotenaren beldurrez disfrutatu ere ez du egiten jende askok! Alargunak beti triste egon beharko balu moduan! Esan ere egin izan diet batzuei: ‘Aldatu aurpegi hori eta disfrutatu, orain 40 urte alargundu zinen eta zeuk ere baduzu disfrutatze eskubidea-eta! Zure gizona jaikiko balitz, haserretu ere egingo litzateke zu horren goibel ikustean!. Zeu hil ez bazara, zer egingo duzu ba? Bizil!’. Nire adineko denak ez daude disfrutatze moduan ere, ezinduta ere badaudelako batzuk, baina ezinik ez duenak zergatik ez du ba gozatuko ahal duen bitartean?

### ◆ **Zer esango zenieke dudatan daudenei?**

Etortzeko. Batzuk ezinduta daude, baina ahal izanda kiroldegira ez doanak ez daki ondo zer galtzen duen. Bueno, badakite, esan izan diet-eta. Aurten esan eta esan ibili natzaie lauri, eta hiru behintzat badatoz. Jendeak beldurra dio besteek esango dutenari, eta horixe ez dut ulertzen nik. Bizi bagara, bizi egin behar gara. Begira ditugula batzuk? Guapa gaudelako begiratzen al digute? Bada, esan dezatela horixe. Aitortu dezatela inbidiaz begiratzen digutela. Zoriontsu izateko, norberak egin behar du ahalegina. Neure buruari ere sarri esaten diot hori. Ohera joan eta negarrari ematen badiot, haserre esaten diot. “Bale, Lidia. Negarrak ez du ezer konpontzen. Egizu lo, loak zaharberritzen zaitu eta!”. Gerriko minez nabil eta makuluak erabili beharko nituzkeela esaten didate, baina nik makuluei ere esaten diet: ‘gelditu zaitzte hor, ni bakarrik noa-eta!’.

# HAIR'S

## ILEA PAINDEGIA

San Bartolome, 6 behea  
Tel.: 943 531 279

Asteartean jubilatuen eguna:

Orraztu 8 €

Garbitu, moztu eta orraztu 16 €

*Ondo  
pasa  
jaietan!*



PEDRO BASURCO - AMAIA PAGOAGA

*Ondo pasa  
jaietan!*

Deba kalea 2, bajo - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)  
Telf.: 943 74 80 13 - Fax: 943 74 81 35  
segurarno@segurarno.com - www.segurarno.com

# ITURRI TABERNA

Kalegoen plaza, 5  
Tel.: 943 257 448

*Ondo  
pasa  
jaietan!*

- GOSARIAK
- PINTXO HOTZAK ETA BEROAK
- RABAK
- RAZIOAK
- OGITARTEKOAK



- INPRIMAKETA DIGITALA
- Lan komertzialak
- Irudi korporatiboa
- Katalogoak, Liburuxkak
- Kartelak, Egutegiak
- Ezkontza gonbidapenak
- Zorion-agurrak, etab.

TAMAINA HANDIKO KARTELGINTZA



www.jasonesg.com



San Ignazio, 1  
ELGOIBAR

Tel.: 943 53 17 45

jasonesg@jasonesg.com

# talleres ZAILDU S/L

- Makineria konpontzen espezialistak.
- Mandrinadorean planoekin egindako lanak.
- Prentsa Goiti eta mandrinadora AYCEren mantenimendua.

*Jai zoriontsuak  
elgoibartar guztioi!*

Santa Klara, 40  
Tel 943 74 07 60  
Faxa: 943 74 39 95

AHOLKULARITZA

# BIKAIN

ASESORIA

Tel.: 943 744 557  
Faxa: 943 740 408  
e-posta: bikain@fonocom.es

- Zerga-aholkularitza
- Lan-aholkularitza
- Kontabilitate aholkularitza

Antonio Arrillaga, 4 behea  
20780 ELGOIBAR





*Julen Ansola*



## Eider Iriondo



dazlearen paperean jarri naizen honetan, etxeko tontor berezi honetara ekarri naute zure begiek, Julen.

Nork ez du leku kuttun bat eta nori ez zaio bertara joatea gustatzen. Niretzat hauxe da horietako bat. Berezia

oso, etxekoa, gurea.

Leku horretara iristean, izerdi tantak erortzen dira nire masail gorrietan behera, zelai berdea bustiz, eta ni, itsaso barrenean murgilduta ibili den buzeatzailea bezalaxe, itsaso zabalera iriteten naiz tontor hau zapaltzean. Eta hemen aske sentitzen naiz. Libre.

Igarotzen dira hegazkinak, zerua marrazten duten hegazkinak. Zelai zabalean gorputza lurrera bota eta arnasa hartu. Segundu batez nire begiak itxi, eta amets egiten dut. Haizeak ferekatzen nau, eta maitalearen besarkadak ematen didan berotasuna bezain beroa da eguzki honek ematen didana.

Lehen urdina zena, orain horia bihurtu da, eta poliki-poliki urrezko bola mendien atzekaldean sartzen hasi da.

Aurrez aurre daukat trikuharri itxura duen harrizko panoramika.



## Julen Ansola

Oporretan behin eta berriz erabili dugun mapa simurtuaren antzera, behin eta berriz begiratzen diot nik harri honi, konkistatu gabeko tontorren bat ageriko ote den esperoan. Bestaldean, norabide ezberdinak markatzen dituen egurrezko postea dut. Erabakia hartzerantz kondentatuta nago. Erabakiz eta erronkez beteriko bidea baita bizitza. Zalantzas betea, bai, baina beldurrik ez etorriko denari. Bihar ere gailurra zapaltzeko prest izango naiz. Izango ditut sasiak, potzuak, arantzak, minak, baina prest nago; luma hau hartzeko orduan bezala, beldurrik ez baitut zure begiak eta nire hitzak jolasean jartzeko. Mila begi izango ditugu testigu, Julen, begirada asko eta kritika ugari, baina hori ez da arazo izango. Arnasa eta loa benetan lapurtzen digutenak dira arazo. Konponbiderik ez dutenak. Arazoei aurre egiteko eta indarra hartzeko beharra dudan aldietan, txoko honetara gerturatuko naiz, behar dudan eta oraindik aurkitu ez dudanaren bila, arnas horren bila.

Laster izango da ilargia, eta nik bere argia maite badut ere, hegan noa nire kabirantz eta zapi gorria jantzi eta egunsentira arte dantzatuko dut. Hauxe nire azken erabakia. Gaurko azken erabakia.

***“Niretzat hauxe da leku kuttunetako bat. Berezia oso, etxekoa”***

HURRENGO ERAIKUNTZA

# UZTARRI ETXEAK

11 Kalitatezko etxebizitza Elgoibarren

Etxebizitza **erabilgarri eta erosoak**, zentzuzko prezioan.

Kokapen ezin hobean: herrigunetik 5 minutura oinez eta zerbitzu guztiak eskugarai. Elgoibarko Santa Klara, 11 zenbakian.

- 90 eta 60 metro karratuko etxeak ( 2 eta 3 logeladunak)
- Terraza zabalak eta orientazio egokiarekin
- Trastelekua barne eta aparkalekua aukeran
- Sukalde, jangela eta egongelarekin loturiko terraza
- Sukalde hornitua eta horma-armairuak

Zure beharretara antolatutako etxebizitzak dira, eta kalitate goreneko materialekin egindakoak.



2 LOGELA 120.000tik AURRERA

3 LOGELA 227.000tik AURRERA

Salmenta:

**943 741 528**

[www.bikun-eraikuntzak.com](http://www.bikun-eraikuntzak.com)

Finantziaketa:



*Hainbeste itxarondako festak iritsi dira.*  
**Ondo pasa!**



# Belaustegi Baserria



## JATETXEA

San Migel Gaina z/g  
Tel. 943 74 31 02  
[www.belaustegi.com](http://www.belaustegi.com)

Sanbartolomeetan  
gozatu Belaustegin!

Ondo  
pasa  
jaietan!



Sanbartolomeetako menu berezia egongo da!



Ondo pasa  
jaietan!



elgoibarko  
herri eskola

# GOKI ERREFORMAK S.L.

OBRAK ETA PROIEKTUAK



Olaso pol., 15 - 68 Pab. 20870 ELGOIBAR  
Tel.: 943 744 223 - 943 744 587  
[goki@gokierreformak.com](mailto:goki@gokierreformak.com)

Irizar Ibilbidea, 1 behea 20570 BERGARA  
Tel.: 943 765 342 - Faxa: 943 765 216  
[bergara@gokierreformak.es](mailto:bergara@gokierreformak.es)

**Fatxadak (Isolamendu termikoa) - Teilatuak - Bainugelak  
Sukaldeak - Igogailuak - Gremioen koordinakuntza**



**I.T.E.**  
Eraikinen ikuskaritza teknikoak



**Energia-eraginkortasunaren  
ziurtagiria**

**[www.gokierreformak.net](http://www.gokierreformak.net)**

**Ondo pasa San Bartolome jaietan!**